

# Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko urtarrilaren 24a / 526. zenbakia



## AITOR DELARIBERETTE

### MUNDUKO SNOWBOARD TXAPELKETAN

GAZTETXEA: HASI DIRA KONPONKETA LANAK/5 • UDAL MUSIKA BANDA: DOMEKAN, PILOTALEKUAN/12

AZALA: INAKI ITURBE / JATORRIZKO ARGAZKIA; BACKSIDE SNOW PLANET ALDIZKARIA



## Makina Erremintaren Institutua

Azkue Auzoa 1  
20870 ELGOIBAR  
Gipuzkoa  
Tel.: 943 74 82 64  
Faxa: 943 74 41 53  
ingenieria@fmh.es  
www.fmh.es




Enpresa Erregistratua  
ER-0633/1/98

cesi aquitaine poitou-charentes



ES-0633-1998



Euskadi

2003-2004 IKASTURTEA

# TXANDAKAKO ENPRESA INGENIARITZA



## BILERA INFORMATIBOA:

Urtarrilaren 29an, prestakuntzaren ezaugarriak eta sarrera-baldintzak azaltzeko:

- 18:30ean Makina Erremintaren Institutuko (IMHko) instalazioen bisita.
- 19:00etan bilera informatiboa.

- **Enpresarekin elkarlanean** garatutako lanbide-proiektua.
- **Lan-kontratua** prestakuntzaren lehen egunetik.
- **Emaitza erakargarriak: gehiengoa lanean, %40 zuzendaritzako ardurekin.**

**Maiatzaren 23ra arte MATRIKULA EPEA ZABALIK**


Euskara "txinoa" bada zuretzat

...eta euskara zeurea egingo duzu.

Ni txinin, txirrin, txirrinduila, dulai...

UDAL  
EUSKALTEGIAK

Ni txirrinduan nabil.



- Eskaintza: Euskalduntze eta alfabetatze maila guztiak, EGA eta EGAtik gorakoa. Egokitutako taldeak: guraso, merkatari, enpresa... MULTIMEDIA gela.
- Erritmoak: Eskarien arabera. Galde ezazu!
- Bulego Ordutegia: 8:30 - 13:00 eta 14:30 - 18:30.
- Matrikulatzeko epea: Urtarrilaren 20tik 31ra.
- 16 urtetik gorakoendako.
- Bekatze sistema eta diru laguntzak ditugu.


BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi 13, BERGARA. Tel.: 943 76 44 53

berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

berg.euskudal@euskalnet.net

**ATREBENTZIAEZPADA/ Ze da sagardotegixetatik gehixen gustatzen jatzuna? Jungo zara?**



**FRANCISCO ETXARRI**  
68 urte



**ELENA OÑATE**  
27 urte




**JABI IBARRA**  
34 urte



**PEDRO JORGE**  
66 urte



**AITZIBER ALBISTEGI**  
21 urte



**FELIX GARITANO**  
64 urte

Urtero juten naiz sagardotegira, kuadrilliakin. Urteren baten edo huts egin dogu, baiña normalian juten gara. Gehixen gustatzen jatena da jaten emoten dabena.

Ez naiz juten, eta aurten be ez naiz jungo. Behin bakarrik egon naiz, eta ez jaten gustau. Garestixa dala pentsatzen jat, eta ezin da fundamentoz jan. Horregaittik ez naiz juten.

Gustatzen jat, eta normalian urtero juten naiz. Batzuetan behin baino gehixago jun izan naiz. Aurten be juteko asmua daukagu, baiña nora ez dogu pentsau. Girua gustatzen jat.

Aurten ondiokan ez naiz jun. Aurreko urtietan izan naiz. Gehixen txuletia eta bakalaua jatia gustatzen jat. Baiña baita girua be. Dana dala, jartzeko aukeria dagonak gustatzen jat.

Normalian ez naiz juten. Bueno, ez naiz behin be egon. Dana dala, badaukat probatzeko gogua. Sagardaua ez jat gustatzen, baiña girua ikusi eta txuletak jateko gogua daukat.

Sagardotegi bat daukat nik gustukuena: Usurbilgo Aginaga. Hillian behin-edo juten gara. Gustatzen jat, sagardotegiko menua edukitziatz aparte, bestelakua be badaukalako.

**TXALOAK ETATXISTUAK**



**TXISTUAK ESERLEKUAK KENDU BAI, ETA JARRI?** Irizar jauregiko lorategia berritu aurretik hainbat eserleku zeuden. Berritzeko kendu egin zituzten eta lanak amaitu zituztela denbora pasatu den arren, ez dituzte berriz ipini. Irakurle batek halaxe esan digu eta harek, behintzat, faltan botatzen ditu. Eguraldiak epeltzen duenerako jarrita egotea espero duela ere esan du. /M.B.

**ETABARRUAN...**

ASTEKO BERRIAK /7

KIROLAK /11

KULTURA /12

**San Bixente jaiak Parteittin**

Beste ekitaldi batzuen artean, Arrasateko Kataide baserriko urteko txakolina aurkeztuko dute.

**Bergara-Elgoibar, bihar**

Preferente mailako Bergara eta Elgoibar futbol taldeen arteko partidua, bihar, Agorrosinen.

**Antzerkia gaztetxean**

Domekan, Kaske-ta kabareta taldeak izen bereko antzezlanaren egingo du gaztetxean, 19:30ean.

**ASTEKODATUA**

**45**

**E-POSTAZ JASOTAKO AMODIOZKO GUTUNAK**

Ehun gutun jaso dituzte Jardunen Amodiozko Gutunen Lehaketaren barruan. Eta e-postaren erabilera gora doala ezin ukatu: horietatik, 45 e-postaz heldu dira eta gainerakoak, postaz.

**BESTEKEESANA**

**“** Pertsonalki ez naute kezkatzen Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren planak eragin ditzakeen (batzuetan negatiboak) inplikazio ekonomikoak. Eta ez nau kezkatzen, nahiz eta ez dudan gaiaren gaineko analisi sakona egin, nire intuizioak esaten didalako garrantzitsuen delako jo puntua lortzeko erabiltzen den prozesua, eta ez horrenbeste jo puntua bera. Hala eta guztiz ere, onartu beharra daukat, oharitzen naizela planaren aurka dauden “boteretsuek” mina egin diezaioketela, eta handia, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiari egunen batean plan hori edo antzeko egitasmoren bat martxan jarritz gero. **MARI CARMEN GALLASTEGI / Teoria Ekonomikoan katedraduna / El Diario Vasco/03-01-17**

**BERAIEKDIÑO/ Aitziber Azkondo**



*Zenbat euro 7 kilometroren truke?*

**G**aia hizpide da, egunotan, gure eta ondoko ibarrean, batez ere. Eibar-Gasteiz autobidean, Soralezuko zubian izandako ez-ustekoaz ari naiz. Galdetuko nioke nik Eibarren edota Elgoibar aldean lan egiten duen bergarar bati nolako umorez pasa dituen egun hauek. Lanerako bidea bikoiztu eta gastuak ere handitu. Hau komeria! Erantzukizunak ezin eskatu eta umore txarra... Garai baten entzun nuen nik ere bertako zutaberen bat okertuta zegoela eta orain hauxe. Gauzak ikusita, ea autobidea amaitzen bertatik pasatzeko kemena nork duen. Kemena eta aurrekontua ere bai. Lan guztiak ordaindu egin behar dira eta horren gakoa, gugeu gara, gidariak. A-8an gertatzen den bezala. Zenbat aldiz ordainduko genukeen dagoeneko autobide hori? Zenbat aldiz entzun dugu prezioek behera egin behar dutela? Eta egiten dutenean, zenbateko beherapena izango da? Kasu honetan

kalitateak eta kantitateak ez dute bat egin. Izugarri ordaintzen dugu eta bidea penagarria da. Rally lasterketa baterako primerakoa. Kurbak nahi beste. Donostiatik baldin bazatoz Eibar edo Elgoibarren irteteak alde nabaria du, 3 euro inguru oker ez banago, eta 6 kilometro besterik ez dira. Imaginatu zenbat ordaindu beharko genukeen Donostiatik Bergararaino etorri nahi izanez gero, edo Eibartik. Kilometro bakoitzaren balioa nork eta ze irizpide erabiliz ezartzen duten jakitea nahiko nuke. Eibartik Bergararako lanek zailtasun topografiko handia eta ingenieritza zibil aurreratua izan dute. Ziur nago hori ordaindu beharreko eurotan isaltuta ikusiko dugula. Ez dakit, bergararrok erabilgarri izango dugun kontuan hartu beharreko hainbeste gauza izanda. Lagunok, batetik, euroak bizi maila garestitu duela eta bestetik, zapaltzen dugun bidea ziurra ez dela... berriz ere, hau komeria!

**“Autobideko km. bakoitzaren prezioa nork eta zeren arabera ezartzen duen jakin nahiko nuke”**

**Berrigara**

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: berrigara@goiena.com

**ZUZENDARIA**  
Edu Mendibil  
**ERREDAKZIOA**  
Monika Belastegi,  
Aintzane Irizar  
**MAKETAZIOA**  
Iñaki Iturbe

**PUBLIZITATEA**  
Mireia Larrañaga  
**KOLABORATZAILAK**  
Luis Mari Agirre  
Maitane Arizabaleta  
Juan Martin Elexpuru  
Miguel Angel  
Elkorobereizbar

**LEGE-GORDAILUA**  
SS-50/91  
**ISSN**  
1130-6599  
**TIRADA**  
5.900 ale



BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



**GUARDIAKO FARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 24**  
PUY. Barrenkalea 25. .... 943 76 16 87
- ZAPATUA, 25**  
GUALLAR. San Antonio 5. .... 943 76 11 05
- DOMEKA, 26**  
GUALLAR. San Antonio 5. .... 943 76 11 05
- ASTELEHENA, 27**  
ESTELLA. Matxiategi 5. .... 943 76 19 63
- MARTITZENA, 28**  
MOZOS. San Pedro 4. .... 943 76 12 153
- EGUAZTENA, 29**  
CAMACHO. Oxirondo 4. .... 943 76 11 74
- EGUENA, 30**  
PUY. Barrenkalea 25. .... 943 76 16 87

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

- OSASUNA / LARRIALDIAK**
- Anbulatorioa (txanda) .... 943 76 24 40
- Bergarako Udaltzaingoa. .... 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa. .... 943 76 62 46
- Ertzaintza. .... 943 76 53 40
- Osasun etxea. .... 943 76 24 40
- Asepeyo. .... 943 76 16 43
- Pakea. .... 943 76 13 49
- Angiozarko medikua. .... 943 78 90 27
- Antzuolako medikua. .... 943 76 62 23
- Odol emaeleak. .... 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak. .... 943 76 51 06
- GARRAIOAK**
- Taxiak. .... 943 76 19 50
- UDALA**
- Bergarako Udaletxea. .... 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea. .... 943 76 62 46
- Udal Artxiboa. .... 943 77 91 32
- Igerilekuak. .... 943 76 20 51
- Kultura etxea. .... 943 77 91 58
- Liburutegia. .... 943 77 91 62
- Kiroldegia. .... 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza. .... 943 76 13 68
- BESTELAKOAK**
- Epaitegia. .... 943 76 14 92
- Erregistroa. .... 943 76 13 15
- Jardun. .... 943 76 36 61
- Idolaz. .... 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea. Bergara. .... 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk. .... 943 76 62 71
- Postetxea. .... 943 76 26 85
- Bedelkar. .... 943 76 04 68
- Akulu AEK. .... 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia. .... 943 76 44 53
- Bergarako notariotza. .... 943 76 10 73

**MEZAK**

- |                   |                     |
|-------------------|---------------------|
| <b>San Pedro</b>  | <b>Labegarieta</b>  |
| Domekak: 11:00.   | Domekak: 11:00.     |
| 09:30, 12:30.     | <b>San Lorentzo</b> |
| Zapatuak eta      | Zapatuak:           |
| lanegunak: 19:00, | 20:00.              |
| <b>Sierbak</b>    | <b>Angiozar</b>     |
| Lanegunak: 19:15. | Domekak:            |
| Zapatuak: 19:00.  | 11:30.              |
| Domekak: 11:30,   | <b>Moja</b>         |
| 13:00.            | <b>Zaharrak</b>     |
| <b>Osintxu</b>    | Lanegunak: 9:00.    |
| Domekak: 12:30.   | Zapatuak: 11:00.    |
| Zapatuak: 19:00.  | <b>Mizpirualde</b>  |
| <b>Elosu</b>      | Lanegunak: 11:45.   |
| Domekak: 10:30.   | Zapatuak: 17:30.    |
| <b>Ubera</b>      | <b>Antzuola</b>     |
| Domekak:          | Domekak:            |
| 10:30.            | 09:00, 11:30.       |
| <b>San Juan</b>   | Zapatuak eta        |
| Domekak: 11:00.   | lanegunak: 19:30.   |
| <b>Elorregi</b>   | <b>Uzarraga</b>     |
| Domekak: 10:30.   | Domekak: 10:00.     |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**  
Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro**  
Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean.

**OHARRAK**

**BEDELKARREKO ZOZKETA**  
Bedelkarrek joan zen urtarrilaren 8an egindako zozketan honako zerbaki hauek izan dira sarituak: 2.250, 8.967, 23.741, 59.381 eta 104.617. Boleto jabeek 600 euroko erosketa bono bana eskuratuko dute.

**BEART-EKOAK, MADRILERA**  
Beart artisten elkarteak otsailaren 14tik 16ra Madrilgo ARCO feria ikustera joateko irteera antolatu du. Argibideak, 635 71 32 69 zerbakian.

**ETXEBERRIA ERLOJUTEGIAREN ZOZKETA**

Etxeberria erlojutegiak egindako zozketan zerbaki hauek izan dira sarituak: 9.134 zerbakiak jasoko du lehen saria (1.200 euroko erosketa bonoa) eta 4.899 zerbakiak bigarrena (600 euroko bonoa).

**LOKATZA-KO LOTERIA**

Lokatza loterian 12.943 zerbakiari jokaturakoa tokatu da. Saria eskuratze-ko Euskadiko Kutxatik pasatu beharko dute txartelaren jabeek. Bestalde, loteria txartelekin bi sariren zozketa ere bazegoen: hain justu, 8.103 zerbakiari mendiko bizikleta tokatu zaio eta 9.576 zerbakiaren jabeak bi lagunendako afaria irabazi du.

**IPINTZAKO LOTERIA**

Ipintza Institutuko DBHko 4. mailako ikasleek ikaske-ta-bidaierako Gabonetan saldutako loteria zerbakiari (9.563) jokaturakoa tokatu da. Saria Euskadiko Kutxan eskuratuko dute txartelaren jabeek.

**ODOL ATERATZEA**

Datorren eguaztenean, hilaren 29an, odol ateratzea egingo dute. Ohikoa den moduan, seminarioko lokalean egingo dute, 18:30ean hasita.

**URBANOEN ORDUTEGIA**

- San Lorentzo / San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.  
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Sorraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildoki indiegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegarieta / Olabarrenetik irteerak**  
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.  
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolola (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN**

**Altos Hornosen eta LH Eskolaren arteko hitzarmena**

Bergarako Altos Hornosen eta Lanbide Heziketa Eskolaren arteko hitzarmena sinatu zen 1993an, urtarrilean. Haren ondorioz, Altos Hornosko langileek eskolan emandako ikastaroetan parte hartu ahal izan zuten eta Altos Hornosek diru kopuru bat eman zuten eskolarako.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*“Egaratu”*

- Hegan hasi.  
— Anka ondotik egaratu jatan oillagorra ta ezin izan notsan tiratu.
- Txoriak habitik hegan hasi.  
— Txori-apixia nekixen zazpi txorikumakin baiña akordau orduko egaratu zien.



GORKA HORTEGA

**ASTEKO FILMAK**

**‘HARRY POTTER Y LA CÁMARA SECRETA’**

ZUZENDARIA: CHRIS COLUMBUS. AKTO-REAK: DANIEL RADCLIFFE, RUPERT GRINT, EMMA WATSON, RICHARD HARRIS.

**HARIA.** Dobby elfoak kontrakoa esan arren, Harry Howarts-era doa, magia eskolako bigarren urtea hasteko...

**TOKIA ETA ORDUA.** Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan eta 22:30ean; domekan, 16:45ean eta 20:00etan; eta astelehenean, 19:30ean (ik. eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●



**‘LOS NIÑOS DE RUSIA’**

ZUZENDARIA: JAIME CAMINO. AKTOREAK: ERNESTO VEGA DE LA IGLESIA, ALBERTO FERNÁNDEZ, FRANCISCO MANSILLA.

**HARIA.** Espainiako gerran milika ume beste herrialde batzura bidali zituzten, eta Sobietar Batasunean egondako batzuek orduko bizipenak kontatzen dituzte Jaime Caminoren dokumental hunkigarri honetan.

**TOKIA ETA ORDUA.** Eguenean, hilaren 30ean, 20:00etan. Zinekluba

PUNTUAZIOA: ●●●●●

**OGIZUN**  
koop. elk.  
**okindegia**



San Pedro 21  
BERGARA  
943 76 20 49

Ibargarai 44-46  
BERGARA  
943 76 45 53

Zubillaga 10  
OÑATI  
943 78 24 13

**ANTIA**

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel. 943 76 15 09

**HIRIGINTZA/** Kartzelariaren etxean hasi dira lanak, eta hori konpondu bitartean, kartzela zaharra ekitaldi gune eta taberna izango da

# Gaztetxea egokitze lanak astelehenean hasi ziren, eta zortzi hilabete iraungo dute

MONIKA BELASTEGI

**Dagoeneko hasi dituzte gaztetxea egokitze lanak. Astelehenean hasi ziren, eta bitan banatu dituzte: lehenengo, kartzelariaren etxea konpontzeari ekin diote. Gero, kartzela zaharri ekingo diote. Guztira, zortzi bat hilabete iraungo dute lanek.**

Arregi Eraikuntzak enpresa egiten ari da gaztetxean egokitze lanak, eta egokitzen horiek egiteko, Iñaki Berasategi, Elisabeth Ena eta Xabier Berasategi arkitektoek egindako proiektua hartu beharko du oinarri enpresa eraikitzaileak.

Proiektuak bitan banatzen ditu konponketa lanak: batetik, kartzelariaren etxea konponduko dute, eta horixe izan da, hain zuzen, lanen abiapuntua. Astelehenean, kartzelariaren etxea konpontzen hasi ziren; bestetik, kartzela zaharra konponduko dute.

Lanek, oro har, zortzi hilabete inguru iraungo dute: zazpi bat hilabete kartzelariaren etxeko konponketek eta hilabete inguru kartzela zaharrekoek.

Kartzelariaren etxea konpontzen duten bitartean, gaztetxea kartzela zaharreko gunera mugatuko da. Hori horrela, antolatzen dituzten denetarik emanaldiek eta ikastaroez bere horretan jarraituko dute, kartzela zaharrean; eta tabernari dagokionez, kartzela zaharrera eramanez dute: kartzelariaren etxetik barra hartu eta aretoan egokitu dute.

**GAZTETXEAK SARRERA BERRIA OBREK IRAUTEN DUTEN BITARTEAN**

Lanek beste aldaketa batzuk ere eragin dituzte, gaztetxerako sarreran, esaterako. Orain arteko



MONIKA BELASTEGI

Lanek irauten duten bitartean, Juan Irazabal kaletik sartu beharko da gaztetxera. Irudian, horretarako egokitutako eskailerak.

*Astelehenean hasi zituzten gaztetxeko lanak, eta zortzi hilabete inguru iraungo dute*

*Kartzelariaren etxea konpondu bitartean, kartzela zaharrean egokitu dute taberna gazteek*

*Gaztetxera sartzeko behin-behineko sarrera egokitu dute Juan Irazabal pasealekutik*

sarrera itxi egin dute eta sarrera berria egin diote Juan Irazabal pasealekutik. Horretarako, harrizko hesiaren zati bat kendu eta eskailera aurrefabrikatuak jarri dituzte gaztetxera heltzeko, ondoko argazkian ikusten denez. Aldaketa hori, baina, behin-behinekkoa da, obrek irauten duten artekoa.

Obra sakonenak kartzelariaren etxean egingo dituzte: besteak beste, beheko solairuan taberna, komunak eta sotoa egongo dira; lehenengoan, lantegia, sukaldea, aldagelak eta Txapa Irratia; eta ganbaran, liburutegia, nahiz eta azken hori zalantzan dagoen. Izan ere, proiektuak hainbat aldaketa izan ditu. Gaztetxeko kideen esanetan, ezinbestean onartu behar izan dituzten aldaketak, gustuko ez izan arren, "osterantzean lokala utzi egin beharko genuelako".

Aldaketa horiek Jaurlaritzako Justizia Departamentuak eskatuta egin behar izan dizkio Udalak proiektuari, Bergarako epaitegiarekin izandako auzi bat dela medio. Aldaketa horietako bi dira, esaterako, epaitegira ematen duten leihoak hormatzea eta ganbaratik epaitegira dagoen igarobidea ixtea. Horrek baldintzatu du ganbaran liburutegia jartzea, nahiz eta oraindik ez den kontrakorik erabaki, gaztetxeko kideen esanetan.

Bestalde, gazteek gehitu dutenez, lanak amaitu ondoren gaztetxea erabiltzeko baldintza batzuk jarriko dizkiela aurreratu die Udalak, "nahiz eta oraindik erabilera baldintza horiek zein diren ez diguten aurreratu. Dena dela, guk garbi dugu Gazte Asanblada gisa funtzionatu nahi dugula, orain arte bezala, eta autogestioa oinarri dugula".

## Elorregi auzokoak kexu, A-1 dela eta


MONIKA BELASTEGI

Elorregiko hainbat bizilagun kexu dira Eibar-Gasteiz autobidea eraikitze lanek baserrietara joateko bidean eragin dituzten kalteengatik. Aierdi baserriko Juan Joxe Murgiondok azaldu duenez, auzoko lau etxetara heltzeko dagoen porlanezko bideak behera egin du: "Tunela egiten dihardute, eta, lur asko kendu dutenez, errepedeko zoruak behera egin du, plaka zatiak egin du behera".

Orain dela hilabete eta erdi gertatu zen hori, eta, Murgiondok

gehitu duenez, obrako ardura-dunekin eta Foru Aldundiko ordezkariekin egon diren arren, ez diete konponbiderik eman.

Porlanezko bidea erabili ezin dutenez, beste bide luzeago bat erabili behar dute etxetara iristeko: Tavex enpresa inguruan dagoen bide zaharra. Dena dela, autoak bai, baina bide horretan kamioiendako tokirik ez dagoela gehitu du Murgiondok, eta behar-beharrezkoak direla euren lanerako. Hori guztia dela eta, datorren astean mobilizaziotan hasteko asmoa ere badutela aurreratu du Murgiondok.



GOITB

Bideak behera egin du, irudian ikus daitekeen bezala, eta ondorioz ezin da ibilbailurik igaro.



AITOR URIZAR

Igerilekua estaltzeko lanak amaitu ondoren, barruko igerilekuek zuten ordutegia izango du astegunetan.

**IGERILEKUAK/** Sarrera-irteera Ipintza Institutuko patioetik izango du

## Martxo erdialderako irekiko dute kanpoko igerileku txikia

MONIKA BELASTEGI

Aurreko martitzenean hasi ziren kanpoko igerileku txikia estaltzeko lanak. Estalkia jarriko diote, aurrefabrikatutako aldagelak ere egongo dira, eta airea eta igerilekuko ura bertzeko galdara bat ere jarriko dute. Enpresa eraikitzaileak bi hilabete ditu lanak egiteko.

Dagoeneko hasi dira kanpoko igerileku txikia estaltzeko lanak. Batetik, estalkia eutsiko duen egitura metalikoa jartzeko zuloak egiten dihardute; bestetik, igerilekuaren sakonerari dagozkionak. Orain dela hamar bat urte, umé txikiendako gunean -hesi metalikoraino- sakonera kendu zitzaion igerilekuari: 0,80 zentimetrotik 0,60ra igo zen maila. Egunotan, maila hori berriro jaitسي dute 0,80ra. Hori horrela, lanak

amaitu ondoren, sakonera gutxieneko gunean 0,80 zentimetro izango du igerilekuak, eta sakonenean, 1,20 zentimetro.

Udaleko Kirol Zerbitzuko arduradun Iñaki Ugartebururen esanetan, bi hilabete ditu Artzamedia enpresa eraikitzaileak lanak egiteko: "Urtarrilaren 13tik zenbatzen hasita, orduan, martxo erdialderako zabaltea espero dugu. Dena dela, aurreratzeko ahalegina ere egingo dugu".

### URA ETA AIREA BEROTUKO DITUZTE

Aurrefabrikatutako aldagelak ere jarriko dituzte, igerileku txikia eta Ipintza Institutuaren artean dagoen berdegunean. Horrez guztiaz gain, ura eta igerileku barruko airea berotzeko galdara bat jarriko dute gaur egungo makina gelan edo gela horren ondoan egingo duten gelatxo baten, Ugartebururen esanetan.

Igerilekurako sarrera-irteera ere aldatu egingo dute; Ipintza Institutuko patioetik sartu edo irten beharko da.

### OHIKO ORDUTEGIA

Lehenengo ordutegiaren antzekoa izango du horrek ere: astegunetan, 07:00etatik 21:00etara egongo da zabalik eta zapatuetan, 08:00etatik 19:00etara. Eta domeketako eta jaiegunetako ordutegia zehaztu barik dagoela aurreratu du Ugarteburuk: "Ez daki, lehen egiten genuen bezala, arratsaldez itxiko dugun edo ez".

Igerileku berriak eraiki bitarteko hutsuneari irtenbidea emateko erabaki du Udalak igerilekua estaltzea. Bestalde, bazkide egiteko orduan ibarreko txartela edo Bergarako atera daitezke. Hala, oraingoz, bazkide egin diren gehienek ibarreko txartela eskatu dute.

## ELA sindikatua nagusi Mayc lantegiko hauteskundeetan

MONIKA BELASTEGI

Joan den egubakoitzean, hauteskunde sindikalak egin zituzten Candy Hoover lantegian. Bost sindikatuk dute ordezkari enpresa horretan, eta hamahiru ordezkari bozkatu zituzten.


Hauteskunde sindikalak egin zituzten egubakoitzean, hilaren 17an, Mayc lantegian. 442 langilek dihardute, eta 13 ordezkari sindikal bozkatu zituzten, 1998an egindako hauteskundeetan baino lau gutxiago, langile kopuruak behera egin du-eta.

Emaitzen arabera, ELA sindikatua nagusitu da: bost ordezkari lortu ditu (hiru lantegian eta bi bulegoan), aurreko hauteskundeetan baino bat gutxiago; ESK sindikatuak, berriz, lehenengo ordezkari kopuru bera izango du: lau lortu ditu (hiru lantegian eta bat bulegoan); bestetik, LAB sindikatuaren kasuan ere jaitسي

egin da ordezkari kopurua: egubakoitzeko bozketan bi eskutuz zituen (bat lantegian eta beste bulegoan), aurreko hauteskundeetan baino bi gutxiago; ez azkenik, UGTk ordezkari bat gudu du eta bakarrarekin geratu (lantegian) eta CCOOK, beraz, zeukan ordezkari bakarrarekin jarraituko du (lantegian).

### LAB, CCOO ETA UGT, HAUTESKUNDE SINDIKAL HORIEN AURKA

LAB, CCOO eta UGT sindikatu hauteskunde sindikal horien aurka agertu ziren zenbaketa egutietatik, "mahaiak akats larri egin zuelako". Euren esanetan, langileri bozkatzeko aukera ez zuten mahaiak, nahiz eta hauteskundeak legezkoak diren baldintzak betetzen ez zituzten. Hori horrela, bozketa errepikatzea eskatu zuten, "38 langile horiek erroldatik atera ondoren bozketarako beharrezkoa da hilabeteko antzintasunik dutelako".



### 'Berrigara Gida 2003', laster zuen etxeetan

Hilabete honen bukaera aldera, *Berrigara Gida 2003* jasoko duzue zuen etxeetan. Bergarako, Antzuolako eta Elgetako dendak, enpresen, profesionalen eta, oro har, interesekoak diren helbide eta telefonoak jasotzen dituzte gidak, besteak beste. Horrekin guztiarekin batera, partikularren telefono zenbakiak eta helbideak ere aurkituko dituzue *Berrigara Gida 2003*-n.

# EDEL TAPIZDENDA

Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak,  
koltzak, edredoak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu persiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

DEBA  
GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA  
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar  
Teleforo Aranzadi 2 behea  
943 76 21 80 / 943 76 06 37

# INFERNUKUA TABERNA

Masterreka 23. BERGARA. 943 76 18 49



ARTXIBOA

Txakolina dastatzera, Bergarako jendeaz gain, Arrasateko eta Elgetako jende ugari hurbiltzen da, besteak beste.

**AUZOAK/** Parteitti auzoko jaien barruan, domekan, mezaren ondoren dastatzea izango da

# Kataideko urteko txakolina aurkeztuko dute Angiozarren

MONIKA BELASTEGI

**Domekan, hilak 26, San Bixente eguna ospatuko dute Angiozarko Parteitti auzoan. Besteak beste, meza eta musika izango dira etzi. Eta horrekin guztiarekin batera, Arrasateko Kataide baserriko urteko txakolina ere aurkeztuko dute.**

Angiozarko Parteitti auzoan San Bixente jaiak ospatuko dituzte domekan. Ekitaldiak eguerdian hasiko dira: 12:00etan, meza izango da auzoko San Bixente ermitan, eta horren ondoren, salda banatuko dute Zabarte baserrira hurbiltzen diren guztien artean, soinuaren doinuak alaituta.

Baserri gehiago dauden arren, gaur egun hamar baserri bizi da jendea Parteitti auzoan: Arrikotxon, Koroban, Arregi Torren, Orbe Garani, Orbekotxon, Zabarten, Kesalean, Altzerrekan, Altzuaran Gainerakoan eta Altzuaran Azpikoan, hain justu ere. Aspaldiko ohi-turari jarraituz, auzoko jaiak baserriek lankidetzan antolatzen dituzte. Urte batetik bestera baserri batek du elizaren maiorazkoa, eta horren ondorioz, hura arduratzen da eliza atondu eta San Bixente egunerako elizkizuna antolatzeaz.

Horrez guztiaz gainera, mezaren ondoren banatzen duten saldaz eta txorizoaz, soinu jotzaileaz, eta abarrez, gainerako baserriak arduratzen dira, lankidetzan.

## KATAIDE BASERRIKO TXAKOLINA

San Bixente jaiaren ospakizunaren barruan azken urteotan erro-tu den beste ekitaldi bat txakolin dastatzea da. Hain zuzen, Arrasateko Kataide baserriko txakolina dastatzeko aukera egongo da. Urteko txakolina ekitaldi horretan aurkeztu dute, gainera, Kataidekoek.

Orain dela 15 urte hasi ziren Kataidekoak San Bixenterako txakolina eramaten Angiozarre-ra. Hasieran, botilatxo batzuk eraman eta lagunen arteko kontua izaten zen. Gaur egun, baina, gero eta ezagunagoa da Kataide baserriko txakolina, eta jende ugari hurbiltzen da urteko txakolina dastatzera.



**JUANITA EGUREN**  
KATAIDE TXAKOLINDEGIKOA

*"Kortxoak bakarrik falta zaio aurtengo txakolinari"*

**Arrasatekoa izanik, zer dela eta aurkeztu du Kataide baserriak urteko txakolina Angiozarren?**

Arrasaten bizi naiz, baina Angiozarkoa naiz; Parteittiko Altzuaran baserrikoa. San Bixente egunera betidanik joan izan naiz, eta gainerako auzotarrek bezala, nik ere zerbait eraman nahi nuen; eta txakolina egiten hasi ginenez, txakolina eramaten hasi ginen. 1989an jarri genuen txakolindegia, eta handik hiru urtera-edo hasi ginen txakolina eramaten.

**Urteko txakolina eramaten duzue.**

Bai, zazpiren bat kutxa edo zabaltzen dira, normalean. Aurtengo oraindik ez dago bukatuta. Kortxoak jartzea falta da, eta hori zapatuan egingo dugu. Hortaz, zapatuan kortxoak jarri eta domekan Parteittira eramango dugu. Komeni izaten zaio kortxoak jarri ondoren egun batzuk lagatzea, baina...

**Eta zer moduzkoa da, bada, aurtengo txakolina?**

Dastatu dutenek ona dagoela esan dute. Nik ere ona dagoela uste dut, baina hori ez da nik esan behar dudana gauza bat; hori kanpokoek esan behar dute.

**Zenbat litro atera dituzue?**

Ez dakit, holako gauzak gizonak eramaten ditu. Nik, zuzenean txakolinarekin baino gehiago, beste lan batzuk egiten ditut.

## Ana Mari Rekalde moja omenduko dute domekan

MONIKA BELASTEGI

**Ana Mari Rekalderi –Ama Maria Jesus– omenaldia egingo diote domekan, hilak 26, San Pedro elizan. San Pedro eta Santa Marina koroek organo jotzaile gisa egin duen lana eskertu nahi diote.**

Urte asko eman ditu Ama Maria Jesus Mariaren Lagundiko mojak San Pedro eta Santa Marina parroketako mezetan organoa jotzen; hamabost inguru. Eta dagoeneko nagusia den arren –82 urte ditu–, oraindik ere jarraitzen du zeregin horretan.

Beste hainbat tokitan ere jo izan du organoa: Antzuolan, Angiozarren eta Mariaren Lagun-

diko elizan, besteak beste. Edozelan ere, San Pedroko eta Santa Marina koroek parrokia horietan egindako lana eskertu nahi diote, bereziki, "ezeren truke eta haren borondatez egindako lana da-eta". Hori horrela, domekan, hilak 26, omendu egingo dute. Gainera, egun hori aukeratzeko badu bere arrazoia: hilaren 28an, haren urtebetetzea da; 83 urte beteko ditu Ama Maria Jesusek.

### OMENALDIA, DOMEKAN, SAN PEDRO PARROKIAN

Omenaldia San Pedro parrokian izango da. 12:30eko mezaren ondoren, oroigarria emango diote koroetako ordezkariak Ama Maria Jesusi. Gero, bazkaria egingo dute Azpeitxi jatetxean.



MONIKA BELASTEGI

Bi parrokia horietan organoa jotzen emandako urteak eskertu nahi dizkiote.

## LABUR

### Errefuxiatu sahararrei laguntzeko kanpainaren azken egunak

Laster amaituko da errefuxiatu sahararrei laguntzeko urtarrilean barrena egin den janari eta diru bilketa kanpaina. Honako janaria lagatzea komeni da: lekaleak, zerealak, pastak, azukrea, olioia eta atuna oliotan. Bestalde, janaria lagatzeko guneak hauek dira: Udaltzaingoa, herriko elkarte gastronomikoak eta dendak. Janaria Tyndouf-en (Aljeria) dauden errefuxiatu sahararren kanpamentuetara bidaliko dute.

### Korrika-laguntzaile egiteko aukera herriko hainbat taberna, denda eta elkartetan

Korrika-laguntzaile egitasmoarekin bat egiteko interesa duenak toki hauetan lor dezake txartela: Jardun elkartean, Arranon, Pol-Polen, Junbiju dendan eta Akulu AEK euskaltegian. 10 euroren truke, parte hartzen duenak Korrika-laguntzaile dela adierazten duen txartela eta tximeleta baten pina eskuratuko ditu. Txartelarekin deskontuak izango ditu hainbat zinema eta dendatan.

### Bergara, Antzuola eta Elgetako gurasoendako hitzaldia antolatu du Ipintza Institutuak

Ipintza Institutuak Bergara, Antzuola eta Elgetako gurasoendako hitzaldia antolatu du Kultura Astearen barruan. Hitzaldia datorren eguaztenean izango da, hilak 29, areto nagusian, 18:30ean. Hitzaldiaren gaia *Gurasoak, ordenagailua eta internet etxean* izango da eta hizlaria, berriz, Eider Ganboa.




## DANBOR HOTSAK SAN SEBASTIAN EGUNEAN

**A**zken urteotan, ohitura bihurtu da Bergaran San Sebastian eguna ospatzea. Horixe egin zuten Haur Hezkuntzako ikasleek astelehenean. Sukaldari txanoa jantzi eta musuan bibote dotorea margotu ondoren, gogor jo zuten danborra. Ondo baino hobeto interpretatu zuten Sarriegi konpositorearen martxa ezaguna, gurasoen gozamererako. Ezkerrean, San Martin ikastetxeko ikasleak eta goian, Aranzadi Ikastolakoak.



## MATEMATIKA OLINPIADETAN

**I**pintza Institutuko zazpi ikaslek Leioako Zientzia Fakultatean jokaturako Matematika Olinpiadetan hartu zuten parte egubakoitzean, hilak 17. Batxilergoko 61 ikasle izan ziren lehian, Euskal Herri osokoak, eta hiru onenak Tenerifen izango den Estatu mailako lehiaketarako sailkatuko dira. Asmatu behar izan zituzten ariketak ez ziren edonorendako jarritakoak. Argazkian, zutik, Jon Irazabal, Aritz Elortza, Xabier Moya eta Lierni Zubillaga. Makurtuta, Miren Etxebarria, Edurne Iturbe eta Nerea Lekuona. Miren, Edurne, Lierni eta Xabier *Deia* egunkarian azaldu ziren zapatuan, eta guztiak pozik azaldu ziren egindakoarekin. Zorte on, guztiei!!!



## SUKALDARI LANETAN

**M**ariaren Lagundiko ikasleek Kultura Astea ospatu dute egunotan. Bi eta 16 urte bitarteko ikasleen ekitaldiak izan dira. Eguaztenean, sukaldari lanetan ibili ziren, eta pintxo bikainak prestatu zituzten. Ummm!!!

**SEGUROS LAGUN ARO  
ASEGURUAK**

### AGENTEA

Ramon Maria Lili, 6-behea

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54

Faxa: 943 76 41 54

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera:

9.00-14.00 eta 15.30-19.30



**IRAEGI  
ASEGURUAK**

**ARALAR  
TABERNA**


Goizeko 8:30etik  
aurrera zabalik.  
Asteburuetan  
11:00etatik aurrera.

**Bergarako  
kaferik onena!**

Matxiategi 3



MINGAINARITIRAKA



**Victor Jesus González**

SALSA IRAKASLEA

Habanakoa jaiotzez, Victor Jesusek (36 urte) zortzi urte daramatza Euskal Herrian. Olaberrian bizi da, eta toki askotan jarduten du saltsa ikastaroak ematen. Bergaran 25 bat lagun dabilta Victor Jesusekin, martitzenero, Mariaren Lagundian.

- Orokorrean, zelakoak gara euskaldunak dantzan?**  
Txinatarrak bezalakoak, dena ikasten duzue zuen jarreragatik. Salsa dantzari bikainak dira hemen, kubatarren parekoak.
- Emakumeak ala gizonak dira nagusi zure ikastaroetan?**  
Emakumeak; baina aldatzen ari da, gizonak lotsa galtzen hasi direlako eta salsa harremanetarako tresna dela ikusi dutelako.
- Dantzarik gustukoena?**  
Casinoa. Salsaren barruan Karibeko erritmo guztiak batzen dira, baina casinoa kubatar erritmoen emaitza da, kubatar gazteek dantzatzan dutena eta modan jarri dena. Horixe erakusten dut. Casinoa oso dantza sortzailea da, ez dauka mugarik.
- Kubatarrok beste erritmo bat duzue...**  
Txikitatik edoski dugulako, zuek trikitia bezala.
- Zer behar da salsa ondo dantzatzeko?**  
Gogoia eta jarrera gorputz espresioaren mende lagatzea bakarrik.
- Salsak norbait seduzitzeko balio izan dizu?**  
Niri denak balio dit. Salsa beste tresna garrantzitsu bat da.
- Emakume batengan zeri erreparatzen diozu lehenengo?**  
Haren inteligentziari.
- Euskal dantzekin ausartu izan zara inoiz?**  
Hemengo dantzetarako traketsa naiz. Euskaldun batek errazago ikasiko du salsa kubatar batek aureskua baino.
- Zein da ezberdintasun nagusia?**  
Energia eta diziplina beharrezkoak dira hemeñ, eta gorputzak salsan baino zurrunago egon behar du. Salsa ez da hain zorrotza.
- Ze musika mota atsegin duzu gehien?**  
Salsa gogorra. Baita musika erromantikoa eta boleroak ere.
- Gustuko dantzari bat?**  
Joaquin Cortés, esate baterako.
- Kubatik zer sumatzen duzu gehien faltan?**  
Gure ama, haren janaria... Eta klima, kubatar jendea...
- Hara itzultzeko asmorik badaukazu?**  
Urtero joaten naiz, baina nahiko nuke bizi izatera bueltatzea.
- Euskal Herritik zer nabarmenduko zenuke?**  
Jende gehienaren zintzotasuna.

EDU MENDIBIL

NIREBIDAIAHURA / Nerea Larrañaga

Holanda, Danimarka eta Paris / 2002an, abuztuan

Umeek eta nagusiok ondo pasatzeko moduko bidaia egin nahi genuen, eta Holanda eta Danimarka aldera joatea erabaki genuen udan, furgonetan. Gure helburuetako bat zen bidean zeuden jolasparkeak bisitatzea, eta hainbat zoologiko ere ikusi genituen. Zortzi lagun joan ginen, bi bikote eta gure seme-alabak: June (2 urte eta erdikoa), Mariñe (3 urte eta erdikoa), Josu (8 urte) eta Markel (10 urte). Hara joan aurretik, Interneten informazioa jasotzen ibili ginen; eta, era berean, aterpekide-agiria atera genuen.

Joan aurretik, ibilbidea zehaztu genuen eta aterpetxeetan erreserba egin genuen. Guztira, 6.000 kilometro egin genituen, baina etapak ez ziren luzeegiak izaten. Gainera, hango errepideak oso onak dira.

Holandan, besteak beste, Amsterdam, Delft, Alkmaar eta Madurodam bisitatu genituen. Madurodam La Haya ondoan dago: miniaturen hiria da; oso bitxia benetan. Normalean, tokian tokiko turismo bulegora jotzen genuen, eta han ematen ziguten beharrezko informazio guztia. Iluntzean, berriz, hiritik kanpoko aterpetxeetara joaten ginen, lo egitera. Aterpetxeak primeran gertatuta daude Holandan eta Danimarkan: lau ohatzeko (litera) bina gela hartzen genituen, normale-



*“Aterpetxeak primeran gertatuta daude Holandan eta Danimarkan; benetan merezi du”*

*“Danimarka izugarri gustatu zitzaigun; oso hiri eta herri politikak daude han”*

an, eta bakoitzak bainua eta dutxa zituen. Horrez gain, oheko izarak-eta lagatzen zizkiguten, eta prezioaren barnean gosaria ere sartzen zen. Janaria-eta oso garestia denez han, hemendik eraman genuen, eta aterpetxeetako sukaldean gertatzen genuen eguneko jana.

Danimarka izugarri gustatu zitzaigun; oso hiri eta herri politikak daude. Kopenhagen Europako jolasparke zaharretakoa dago: Tivoli. Eta Jutlandiako beheko partean, berriz, Legoland izenekoa, lego piezekin egindako parke benetan ikusgarria. Bestalde, Odensen ere egon ginen, Hans Christian Andersen ipuingilearen jaioterria. Haren omenezko museo dago han, eta umeek moztortzeko eta antzerki jolasak egiteko aukera daukate. Hiri bakoitzeko museoak, zoologikoak, kirol instalazioak, jolasparkeak edo garraio publikoak erabiltzeko txartelak saltzen dituzte, eta benetan merezi du. Bestalde, Danimarkan dauden hiri bizidunak (aktoreek antzinarako bizimodua antzeztzen dute) ere ikustekoak dira. Azkenik, handik etortzean, Parisen egon ginen, hiru egunez, hiria bisitatzeko eta Eurodisney jolasparkean. Umeendako, amaiera ezin hobea, duda barik.

EDU MENDIBIL



Lagun koadrila, Kopenhageko Amalienborg jauregiaren aurreko plazan.

**ETXEBERRIA**

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

**KONDE PANADEROKUA**



Burdiñate 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA



**POL-POL Taberna**

943 76 07 78. Bergara

## ELKARRIZKETA

AITOR DELARIBERETTE ORMAZABAL/SNOWBOARDLARIA

# "Austriako Munduko Txapelketan parte hartzea esperientzia ederra izan da"

EDU MENDIBIL

**A**itor Delariberette 22 urteko bergarar gazteak Snowboardeko Munduko Txapelketan hartu zuen parte, aurreko aste bukaeran, Austrian. *Boarder cross* izeneko espezialitatean, senior mailan, 46. sailkatu zen Aitor. Eguaztenean egin genuen berba harekin, Alemanian zegoela.

## Pozik Munduko Txapelketan egindakoarekin?

Bai. Lehenbiziko aldiz Munduko Txapelketan parte hartzeak aukera izan dut, eta esperientzia ederra izan da. Milaka ikusle egon dira Muraun izandako probetan, sekulako giroa egon da, Alpeetako herrialdeetan bakarrik egoten dena. Bestalde, bagekien oso zaila izango zela aurrenekoekin batera egotea, baina gustura nago lortutakoarekin. Suitzarren, austriarren, italiarren, alemaniarren edo frantsezen aurka ezer gutxi egin dezakegu. Haien maila izugarria da.

## Zelakoa da *boarder cross* espezialitatea?

Minutu inguruko jaitsierak dira, eta bidean bihurtuak, jauziak, peralteak eta beste hainbat oztipo izaten ditugu. Muraun



ko Munduko Txapelketan igerileku txiki bat ere bazegoen. Nola-bait esateko, motokrosean egoten diren antzeko zirkuituak izaten dira. Oso ikusgarria da. Lehenbizi erlojuz kontrako jaitsierak egiten ditugu eta launako kanporaketak ere jokatzeko dira. Lehen, eslalom alpinoak egiten nituen, baina oso proba gutxi ego-

*"Suitzarren, austriarren edo italiarren aurka ezer gutxi egin dezakegu gaur egun"*

ten zirenez, *boarder cross* egiten hasi nintzen. Eta gustura nabil.

## Zenbat lagun izan zarete Austrian?

Jordi Font katalana eta biok etorri gara, Carlos Moreno Espainiako hautatzailearekin batera. Abenduan hasi ginen denboraldia gertatzen, Sierra Nevada eta Astunen. Egia esateko, ez dugu

entrenamendu espezifikorik egiten. Alderdi fisikoa eta teknikoa hobetzeko sekretua ahalik eta ordu gehien ibiltzea da.

## Espainiako Federazioaren partetik zer-nolako laguntza duzue?

Argi dago Estatuan ez dagoela elurretan egiten den kirolaren kiko sentsibilitate handirik. Beste herrialde batzuetan duten kultura hori falta da. Dirulaguntza badaude, baina gauzak orain arte behintzat, ez dira oso ondo egin. Federazioan hainbat aldaketa egon berri dira, eta gure egoera hobetzeko itzaropena daukagu. Ikusi behar.

## Zein probatan hartuko duzu parte aurten?

Munduko Kopako lau bat lasterketa egiteko asmoa daukat Alemanian eta Italian. Eta horien ondoren, Europako Kopan egon nahi dut, Alemanian bertan. Abenduan, lasterketa dezente bertan behera geratu ziren, elur faltagatik, eta orain da gozatzeko momentua. Ahalik eta ondoan ibiltzea da nire asmoa.

## Zein da taularekin ibiltzeko adinik aipatzen duzuna?

26-28 urte. Laster lanean hasitako asmoa daukat beste lagun batekin, Sorluzen, fisioterapeuta. Lanean hastean ez dakit zelan moldatuko naizen.

## Ricardo Varela eta Ana Andions, San Anton Krosean garaile

E.M.

San Anton Krosaren 25. aldian jokatu zen domeka eguerdian. Zilarrezko ezteien aurtengo aldia 28 partaide egon ziren irteeran. Korrikalariak 7,5 kilometroko ibilbidea egin behar izan zuten. Hasieratik lehia handia izan zen, eta helmugan Ricardo Varela izan zen onena, 25 minutu eta 4 segundoko denborarekin. Varelak 14 segundoko aldea ateratzen Inaki Arrazolari eta hirugarren tokian Jose Antonio Piñeiro sailkatu zen, 25 minutu eta 56 segundoko denborarekin. Herriko onenak Jon Arantzabal eta Aitor Eraña izan genituen, 6. eta 7. postuetan, hurrenez hurren. Eta Jose Luis Fernández izan zen herriko beterano onena.


Emakumeetan, Ana Andions izan zen irabazlea (30:10), Marije Velascoren (31:16) eta Amaia Arantzabal (31:40) mendizale bergarar ezagunaren aurretik.



Gizonezkoen podiuma: Arrazola, Varela eta Piñeiro.

AITOR URIZAR

## FOTOKIROLA



## Sauna eta solariuma kiroldegian

Labegarrietako kiroldegian sauna eta solarium zerbitzuak eskaintzen dituzte astelehena ezker. Astelehenetan, eguaztenetan eta egubakoitzetan zerbitzua gizonzkoendako izango da eta martitzenetan, eguenean eta zapatuetan, emakumeendako. Domekan, bikoteek erabili ahal izango dute. Txanda kiroldegian (943 76 56 41) hartu beharko dute interesatuek.



ARTXIBOA

Preferente mailako taldeak beharrezkoa du bihar Elgoibarri irabaztea, igoera lortzeko lehia jarraitzeko.

## Bergara eta Elgoibar aurrez aurre bihar, zapatua, Agorrosinen

EDU MENDIBIL

Preferente mailako sailkapenean 5. eta 6. tokian dauden Bergara eta Elgoibar taldeen arteko partidua izango da bihar, zapatua, Agorrosinen, 16:00etan. Bergarak igoera lortzeko lehia jarraitu nahi du.

EDU MENDIBIL

Pasajes taldeak mahoneroen bola da ona eten zuen zapatuan Molinao fubol zelaian. Liderrak 3-0 irabazi zion Bergarari, eta jarraitzaileekiko aldea handitu du. Pasaiatarrak lidertzan dira, 45 punturekin, eta euren atzetik Tolosa (39 puntu), Berio (38), Anai-

tasuna (36 puntu), Bergara (35) eta Elgoibar (33 puntu) daude. Horren ondorioz, biharko partidua berebiziko garrantzia dauka Juanina Garairen jokariendako. Bergarako entrenatzailearen esanetan, "zapatuan galdu eta gero, guretako oso partidu inportantea da Elgoibarren aurkako. Azkenaldian ez dabilta oso fin, eta ea bihar hiru puntuak eskuratzetik daukagun". Xabier Arregi golegileak ezin izango du jokatu, txartel gorria erakutsi ziotelako.

### BERGARA-ANTZUOLA DERBIA

Bestalde, bigarren erregional mailan Bergararen eta Antzuolaren arteko derbia jokatu da bihar, zapatua, Ipintzan, 17:45ean.

Begararrak 5. tokian dira sailkapenean eta antzuolarrak, berriz, 9. postuan. BKEko lehen mailako kadeteek ere bihar jokatu dute, 11:30ean, Anaitasunaren aurka. Domekan, Euskal Ligako gazte taldeak Lagun Onak izango du bisitari Agorrosinen, 16:00etan. Aurreko zapatuan, Bergarak 0-3 galdu zuen etxean Sporting Herreraren aurka.

### BATZORDEAREN ESKER ONA

Bestalde, BKEren 50. urteurreneko ospakizunak antolatu dituen batzordeak ekitaldietan parte hartu duten guztiei eskerrak eman nahi dizkie, bereziki, Bergarako Udalarari, Kutxari, Candyry eta Aceraliari.

## Udaberri Pilota Txapelketa, gaur, Udal Pilotalekuan

E.M.


Udaberri Pilota Txapelketako hiru partidu jokatu dira gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 19:30ean. Bigarren mailako kadeteek Eibarko bikote baten aurka jokatu dute; lehen mailako kadeteek Irungo Ramuntxoren kontra; eta, azkenik, senior mailako Bergarako eta Tolosako bikoteak izango dira aurrez aurre.

Azken egunotan Udal Pilotalekuan egindako hobekuntza lanak amaitu dira dagoeneko. Besteak beste, ezker paretaren leun-

du egin dute eta pilotalekua berriro margotu dute. Era berean, txukuntze lanak egin dituzte. Gaurkoa izango da obren ondorengo lehen jaialdia.

### EUSKAL LIGAN GALDU

Ander Muguruzak eta Igor Gutierrezek galdu egin zuten zapatuan Euskal Ligako lehenbiziko jardunaldian. Antzuolan jokatuako partiduan bergararrek 16-22 galdu zuten Zornotzako bikote baten aurka. Bihar, zapatua, Amezketako Zazpi Iturriren aurka jokatu dute, Amezketan.



E.M.

Udal Pilotalekuko hobekuntza lanak amaitu dituzte oraingo astean.

ESKUBALOIA

### Senior mutilen taldeak Urdulizen aurka jokatu du zapatu arratsaldean kiroldegian

BKEko senior kategoriako mutilen taldeak Urduliz hartuko du zapatuan kiroldegian, 16:30ean. Edu Orgazen taldeak 37-20 galdu zuen aurreko zapatuan Zarautzen. Bergararrak sailkapeneko 12. tokian daude eta Urdulizkoak, berriz, hirugarren tokian daude. Bestalde, senior kategoriako nesken taldeak oso garaipen garrantzitsua erdietsi zuen zapatuan Muskizen (16-21).

SASKIBALOIA

### Bergara-Oñati senior mutilen saskibaloia partidua bihar, zapatua, Labegaraietan

Aurreko jardunaldian atsedena izan ondoren, senior mutilen saskibaloia taldeak etxean jokatu du bihar. Ramon Condek zuzendutako Bolsos Bergara taldeak Oñatiren aurka neurtuko ditu indarrak, 19:15ean. Bestalde, kadete mailako bi taldeek irabazi egin zuten zapatuan: lehen mailakoa Cafes Aitonari nagusitu zitzaion (59-47) eta bigarren mailakoak Azpeitiari irabazi zion (32-29).

## LABEGARAIETAKO FUTBITO TXAPELKETA

### ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

#### ZAPATUAN, BARRUAN

09:30: Las p. de Satan-Canalejas. **Belengua**  
10:30: Aterpe-Belengua. **Getokuak**  
11:30: De Ore-Getokuak. **Pirulotarrak**  
12:30: Pirulotarrak-C.Nucleico. **Getokuak**

#### DOMEKAN, BARRUAN


09:30: Bayer-Txipiron. **Bildurbarek**  
10:30: Bildurbarek-Torrekua. **Txipiron**  
11:30: Fac-Bedarreta. **Errotagain**  
12:30: Pagomendi-Errotagain. **Bedarreta**  
16:00: K.Piperrak.-Argandolas. **Dedo Pafarru**

17:00: Dedo Pafarru-TNT. **A Ze Flaxa**

18:00: A Ze Flaxa-Artusamak. **Mongatxurak**

19:00: Bar Ganbara.-Mongatxu. **Irubide**

20:00: Irubide-La Quinta del Buitre. **Ganbara**



# Herran

### ELEKTRIKAKO TRESNAK

Soinua, telebista, hozgailuak...

Matxiategi, 3  
943 76 12 22

### SUKALDEKO ALTZARIAK

Vegasa banatzaile ofiziala

Matxiategi, 4  
943 76 37 53





Aurreko urteetan egin bezala, otsailaren 14an, San Balentin eguna banatuko dituzte sariak. Irudian iazko irabazleak.

Epaimahaia urtarrileko azken asteburuan batuko da lehiaketako lau sariak erabakitzeko

## Amodiozko 100 gutun jaso ditu Jardun elkarteak

MONIKA BELASTEGI

Aurten ere jende ugari hartu du parte Jardun elkarteak antolatzen duen Amodiozko Gutunen Lehiaketan: 100ek, hain justu ere. Epaimahaia urtarrileko azken asteburuan batuko da sariak erabakitzeko, eta otsailaren 14an banatuko dituzte, San Balentin egunean.

Urtarrilaren 8an amaitu zen gutunak aurkezteko epea, eta Jarduneko kideen esanetan, 100 lagunek hartu dute parte Amodiozko Gutunen XI. Berrigara Lehiaketan. Horietatik, 71 emakumezkoak dira eta 29, berriz, gizonezko-

ak. Adinaren kasuan, idazleen batez bestekoa 20 urtekoa da: idazle gazteenak 20 urte ditu eta helduenak, berriz, 48.

Jatorriari dagokionez, Bergararik lau gutun jaso dira; Deba-goienetik, bederatziki; Gipuzkoatik, 64; Bizkaitik, 15; Nafarroatik, 17; eta Iparraldetik, lau gutun. Bestalde, postaz 55 gutun jaso dira eta e-postaz, 45.

Epaimahaiko kideak urtarrileko azken asteburuan batuko dira saria erabakitzeko. Lau lagunek osatzen dute epaimahaia: Sustrai Colina bertsolariak, Iban Zaldua idazleak, Jabier Mugu-ruza kantariak eta Bertol Arrieta iazko irabazleak. Sari bana-

keta, bestalde, otsailaren 14an izango da, San Balentin egunean.

### SAKELAKO TELEFONO BIDEZKO MEZUAK

Gutun lehiaketaren baitan antolatutako beste lehiaketa horrek ere arrakasta handia izan du. Lehiaketa nagusiaren oinarria amodiozko gutuna idaztea zen bezala, horretan sakelako telefonoa erabilia amodiozko mezuak bidaltzea izan da. Horretarako, bi telefono zenbaki jarri zituzten antolatzaileek, eta 57 mezu jaso direla aurreratu dute. Bidaltzaileen batez besteko adina 21 urtekoa da, baina denetarik izan dela esan dute Jarduneko kideek. Nagusienak, esaterako, 54 urte ditu.

## Jende ugari gaztetxeko CDaren aurkezpen kontzertuetan

MONIKA BELASTEGI

Jende ugari batu zen, egubakoitzean eta zapatuan, *Astindu* fanzinearen zenbaki bereziarekin batera gaztetxeak ateratako CD bikoitzaren aurkezpen kontzertuetan. Bi egunak kontuan izanda, 800 lagun inguru; eta horixe izan da orain artekoetarik jende gehien batu duen ekitaldia.

Gaztetxeko kideek ekitaldiaren oso balorazio positiboa egin dute, eta disko ugari saldu direla ere aipatu dute: ateratako mila kopietatik, 600 inguru.

### KONTZERTUAK ETA ANTZERKIA, ASTEBURUAN, GAZTETXEAN

Gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, kontzertuak izango dira gaztetxean. Gaur, Neu eta Desoreka taldeek egingo dute emanaldia, 22:30ean; eta bihar, Arima Beltza taldeak jardungo du, ordu berean.

Horrez gainera, domekan, lau neska osatutako Kasketa Kabareta talde donostiarrak *Neskapolitan* izeneko antzezlanaren egingo du, 19:30ean.

Nahia Iparragirrek, Arantza Rementeriak, Amaia Sansinene-

ak eta Ainhoa Irazuk osatzen dute Kasketa Kabareta. Antzerkiaren bidez, emakume bezala pentsatu eta sentitzen dutena adierazi nahi izan dute, eta, kabaret kritiko, zitriko eta zorrotza egiteaz gain, egungo bizimoduari kritika egiten diote lau neskek. Euren hitzetan, antzerkiaren bidez barruan dutena kanporatu nahi dute, era lotsagabe eta alaian.

*Neskapolitan* Euskal Herriko moda aldizkaria da, eta hedabide horren moda gala dela eta, hainbat egoerari tira egiteko aukeraz baliatzen dira.

## LABUR

### Udal Musika Bandak hileroko emanaldia egingo du domekan Udal Pilotalekuan

Udal Musika Bandak hileroko emanaldia egingo du domekan, hilaren 26an, Udal Pilotalekuan, 12:30ean.

Alfredo González Chirlaqueren zuzendaritzapean, Udal Musika Bandak bost lan egingo ditu emanaldian. Programa honak hau izango da: P. Markinaren *Certamen Levantino* pasodoblea; Van Beethovenen *Prometheus* obertura; I. Albenizen *Córdoba* intromezzo; J. Francoren *Aires Vascos Nº 2*; eta, amaitzeko, Duke Ellington-en *Sophisticated Ladies* big band-a.

### Beatriz Pérez margolari gaztearen erakusketa ikusgai Nahikari tabernan

Beatriz Pérez Bergarako margolari gazteak erakusketa du Nahikari tabernan. Pérezek hamahiru olio zintzilikatu ditu tabernan, eta, batez ere, paisaiak daude ikusgai.

Erakusketa hilaren amaiera arte egongo da ikusgai taberna ordutegian.



### Juan Jose Altuna Akizuren erakusketa

Juan Jose Altuna Akizuk margolan erakusketa du ikusgai Arrasateko Arregi arte galerian. Altunak hamalau lan jarri ditu galerian: batzuk olioak dira eta beste batzuk, hainbat teknikaekin egindakoak. Erakusketa otsailaren 17ra arte egongo da ikusgai. Arregi arte galeria Maalako errabalean dago, eta erakusketa denda-ordutegian dago ikusgai. /M.B.



Irudian, Aitzol Mujikak egindako kontzertuaren une bat.

E, TXO!

GUREGAIK/ MUSIKA

The Elebators taldea,  
'Gaztemaniak' diskoan

AINZANE IRIZAR

Diputazioak antolatzen duen **Gaztemaniak!** Lehiaketan saritua izan da The Elebators talde bergarra. Hala, argitara eman duten **Gaztemaniak!** Lehiaketaren seigarren CDan parte hartu dute bergarrek.

Gipuzkoako 50 musika talde eta bakarlarik hartu dute parte **Gaztemaniak!** Lehiaketaren seigarren aldian. Horietatik guztietatik, hamabi talde aukeratu dituzte, eta CDa kaleratu dute talde horietako bakoitzaren abesti banarekin.

Saritutakoen artean dauka-gu Bergarako The Elebators taldea ere. *Party* izeneko abestia

aurkeztu zuten **Gaztemaniak!** Lehiaketara, eta abesti horixe, hain zuzen, entzun dezakegu *Gaztemaniak* diskoan. Dagoeneko salgai dago disko hori, hiru eurotan.

**THE ELEBATORS, GORA ETA GORA**

1995ean sortu zuten The Elebators taldea Bergarako hiru gaztek: Mikelek gitarra jo eta abestu egiten du, Kepak bateria jotzen du eta Aitorrek, baxua.

Rock musika lantzen dute, eta, besteak beste, The Stooges, T-rex, Sciencists taldeak dituzte gustuko. Orain dela urtebete, maketa kaleratu zuten, Aitzol Mujikaren laguntzari esker. Sari horrekin, berriz, taldearen izenak dioen moduan, musikagintzan gora egiten jarraitzen dute.



The Elebators taldearen *Party* abestia entzun dezakegu *Gaztemaniak* diskoan.

**GAZTETXEAN HAINBAT EKITALDI**

Oraingo astebururako hainbat ekitaldi antolatu ditu Bergarako gaztetxeak. Hala, gaur, egubakoitza, bi musika talderen kontzertua izango dugu, 22:30ean: Neu eta Desoreka taldeek joko dute.

Bihar (zapatua), berriz, Arima Beltza taldearen emanaldiaz gozatzeko aukera izango dugu, gaztetxean, 22:30ean.

Eta etzi, domekan, azkenik, antzerkiaren txanda izango da: Kasketa Kabaretaren emanaldia izango dugu, 19:30ean.

**ATERPETXEEN ALDIZKARIA ESKURAGARRI**

Gazteendako aterpetxeen gaineko aldizkariaren bigarren zenbakia, abendukoa, hain justu ere, Gazte Informazio Gunean duzue eskuragarri. Eskiaren gaineko erreportaje berezia egin dute oraingo zenbaki honetan, eta beste hainbat gai ere landu dituzte.

**URRUZUNO LITERATURA LEHIAKETA**

Eusko Jaurlaritzak deialdia egin du gazteen artean euskara sustatzeko antolatzen duen Urruzuno Lehiaketan parte hartzeko. Literaturaren alor guztietako lanak onartuko dituzte, bertso-paperak barne, eta apirilaren 9ra arte dago lan horiek aurkezteko epea. Gaia librea izango da. Bestalde, lanek orijinalak izan beharko dute, lehenago argitaratu gabeak, eta, jakina, beste lehiaketa batzuetan saritu gabeak. Informazio zabalagoa nahi izanez gero, Eusko Jaurlaritzako honako telefono zenbaki honetara dei dezakezue: 945 01 80 00.

**LOTSABARIK/ Naiara Ignacio**

**"Artearen esparruan lan egin nahiko nuke"**

AINZANE IRIZAR

Pixka bat kosta zitzaigun Naiararekin hitzordua jartzea; izan ere, elkarrizketan ikasteko nahiko alferra dela esan digun arren, azterketetarako ikasi beharra zeukala-eta, denboraz larri zebilen.

• Txikitan, zer izan nahi zenuen?

Albaitari; izan ere, betidanik gustatu izan zaizkit asko animaliak.

• Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zeure burua?

Bikotekidearekin bizi izaten, baina hori bai, ezkondu barik, e! Lanari dagokionez, berriz, arte-

arekin lotutako zerbaitetan lanean; izan ere, Arte Ederretako ikasketak egin nahi ditut.

• Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berriro?

Ikasteko; izan ere, kosta egiten zait ikastea, nahiko alferra naiz-eta.

• Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.

Egia esan, ez daukat taktikarik; batzuetan, kontrolatzen naute, baina orokorrean, nahiko askatasun ematen didate.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Lehendabizi, neure buruari; eta gero, familiari eta lagunei.

• Zure bertute bat? Oso alaia eta irekia naizela.

• Eta hutsune bat?

Haserretzen naizenean, jeno bizia daukadala, *malaletxe* handia daukat.

• Zerk amorratzen zaitu?

Gezurrek eta faltsukeriak amorratzen naute gehien.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Ilea.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?

Aurpegiari, orokorrean.

• Zer egiten duzu seduzitzeko?

Ezertxo ere ez; naizen modukoa azaltzen naiz beti, eta nahiko ondo moldatzen naiz.

• Fantasia sexual bat. Zeinek in eta non? Ez daukat fantasiarik.



ADINA: 15 urte • IKASKETAK: DBHko hirugarren maila • ZALETASUNAK: Sorgintxoaren irudien bilduma egitea • FILM BAT: 'Blade' LIBURU BAT: 'Con los ojos cerrados', Federigo Tozzirena • MUSIKA TALDEA: Eminem • KIROL TALDEA: Ez zait kirola gustatzen

**TIRABIRAKA/ Oihan Vega**



## ZAHARRENETXETIK

# Esperientzia Gela inauguratu zuten aurreko eguenean UNED ikastetxean

EDU MENDIBIL

**A**urreko eguenean, urtarrilaren 16an, Esperientzia Gela inauguratu zuten Bergarako UNED ikastetxean. UNEDek erretiratuei zuzendutako ikastaroak abian jarri ditu. Etengabeko formazio programak hiru fase ditu; lehenbizikoan San Joxepeko hogeitau lagunek hartuko dute parte.

Joan den asteko inaugurazio ekitaldian, besteak beste, Kutxako Gizarte Ekintzako arduradun Lorenzo Azurmendi, Kutxako Kanpo Harremanetako arduradun Iñaki Almandoz, Bergarako UNEDeko zuzendari Juanjo Álvarez eta ikastaroaren koordinatzaile Manolo Cainzos izan ziren.

Juanjo Álvarez oso pozik azaldu zen ekimen hori abian jarri dutelako, eta ikastaro horiek burua eta giza harremanak lantzeko aitzakia ezin hobea direla azpimarratu zuen. UNEDeko zuzendariaren iritziz, "nagusien beharretara egokitzea da gure helburuetako bat; alegia, zuei entzutea. Etorkizunean ere San Joxeperekin lankidetzan jarraitu nahi genuke, eta, ahal bada, horrelako jarduerak beste ibar batzuetara ere zabaltzea. Kultura eta aisialdia tartekatzea oso interesgarria iruditzen zaigu. Ni oso ilusionatuta nago ikastaro horiekin, eta ea datorren ikasturteko eskaintza ikasturte akademikoarekin batera abian jarzen den".

Bestalde, Lorenzo Azurmendik adierazi zuen Donostialdean horren tankerako esperientziak oso harrera ona izan dutela. Azurmendik animuak eman zizkien San Joxepekoek, ikasten jarrai dezaten. Azkenik, Manolo Cainzosek ibilbide honetan bidaialagun izango dutela esan zien lehen faseko ikasleei.

*Ekaina bitartean, etengabeko formazio programak hiru fase izango ditu*

*Lehenbiziko fasean San Joxepe elkarteak 20 lagunek hartuko dute parte*

Lehen fasean, Manolo Cainzosekin batera, giza harremanak, osasuna eta bizi kalitatea eta dietaren garrantzia lantzeko eskolak

izango dituzte, otsailaren 20ra bitartean. Eskolak eguenero izango dira, UNEDeko azken solairuan, 17:00etatik 20:00etara.

**ESKOLAK, EKAINERA ARTE**

Bigarren fasean (otsailaren 27tik apirilaren 30era) Euskal Herria ezagutzeko eskolak egongo dira;

eta hirugarren fasean (maiatzen 8tik ekainaren 12ra), azkenik informatika, musika, pintura eta horrelakoak jorratuko dituzte.



Deutsche Post World Net  
MAIL EXPRESS LOGISTICS FINANCE

## Zure bidalketa zerbitzua Europa osora iristen da.



**Jakin, badakizu, konfiantzaz utz ditzakezula gure esku Espainia eta Portugalerako bidalketak. Nahi al duzu zerbitzu hau bera Europa osorako?**

Euro Expresekin dagoeneko baduzu: izan ere, paketeak garraiatzeko eta banatzeko Europako merkatu bakoitzeko liderrek osaturiko enpresa-sarea baita. Gisa horretan, zure bidalketa doan lekura doala ere, inguruak ongien ezagutzen dituztenek egingo dizute zerbitzua.

Guipuzcoana Euro Expreskekook kalitate/prezio erlazio bikainaz garraiatzen ditugu paketeak eta paletak. Hortaz, zergatik ez duzu gure esku uzten Europara zuzenduko duzun hurrengo bidalketa?

[www.guipuzcoana.com](http://www.guipuzcoana.com)

Harremanetarako: 943 763 642 - San Juan Erreka 33, E-20570 Bergara - [bergara@guipuzcoana.com](mailto:bergara@guipuzcoana.com)

**Ezagutza, bertakoa. Esperientzia, Europa-mailakoa.**

**GUIPUZCOANA**  
EURO EXPRESS

**BONOFOTOA**



MIGUEL ANGEL ELKORBEREZIBAR

Zein izen du 1978an sortu zuten Arruriagako elkarte honek?

**GALDEDEBALDE**

**1.**

Sakelako telefono bidezko Amodiozko Mezuen Lehiaketan zenbat mezu jaso dira?

- A/ 57.
- B/ 83.
- C/ 112.

**2.**


Zein da erretiratuei zuzendutako Esperientzia Gelaren koordinatzailea?

- A/ Lorenzo Azurmendi.
- B/ Manolo Cainzos.
- C/ Iñaki Almandoz.

**3.**

Aitor Delariberettek Munduko Snowboard Txapelketan hartu du parte. Non jokatu da?

- A/ Alemanian.
- B/ Suitzan.
- C/ Austrian.



**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**JUAN PÉREZ**rendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Juan! Aurreko asteko galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: **Uribetxeberri** / Galde debalde: **1-B, 2-B, 3-C.**



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

BONOFOTOA .....

GALDE DEBALDE ..... 1/ ..... 2/ ..... 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....


**Orlando tomate frijitua**

410 gr. + %20 doan

**0,48€**

80 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



E.M.

**PINTOREBERGARARRAKGAUR**

**Oihana Garitano**

EDU MENDIBIL

**O**ihana Garitano (Bergara, 1976) Arte Ederretan lizentziaduna da. Marraztea eta pintura betitik gustatu izan zaizkio, eta, Leioako Fakultatera joan aurretik, Juanjo Altunarekin ibili zen ikasten. Hala ere, gaur egun, pintura pixka bat alde batera lagata duela diosku: "Zaila egiten zait nire gauzak pintura bidez adieraztea; orain, ez dut ikusten nire burua pinturan. Edozelan ere, diziplina guztietatik pinturak erakartzen nau gehien". Ikasketak amaitu ondoren Londretera joan zen, eta han argazkia lantzen hasi zen. Hain zuzen, Oihanaren azken erakusketa Londresen ateratako argazkiarena izan zen: "Gustuko dut kezkatzen nauten gauzei, barruak edo barrena ukitzen didaten objektuei argazkiak ateraztea; alde horretatik, nahiko fetxista naiz. *Collage*-ak egitea ere atsegin dut. Argazki ugari egiten dut, baina zirriborro modukoak direla esango nuke, ez dira lan bukatuak".

Gaur egun, beste lagun batekin batera diseinu grafikoko lanak egiten ditu Oihanak, eta aldi berean, pintura eskolak ematen dizkie Oñatiko eta Bergarako hainbat gaztetxori.

*"Gaur egun, zaila egiten zait nire gauzak pintura bidez adieraztea"*

**ETXAGI JATEXEA**

AFARIAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, EGUNEROKO MENUA, GOSARIAK, BAZKARIAK...

Masterreka, 8  
BERGARA  
943 76 53 12

**AGOITZ**

tapiz  
denda

Leizariako  
San Lorentzo, 25  
BERGARA  
Tel.: 649 112 675

**TELEIXA BILTEGIAK**

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)  
BERGARA  
Tf. 943 76 27 93

**HERRIKO ETXEA**

Eguneko menua+kafea: **6,95** euro  
Gaueko menua: **7,00** euro

Eta pintxoak **0,70** euro!

**Zatoz!**

Bidekurutzeta 23 BERGARA Tel. 943 76 55 23



BERGARA  
**Jone Ibarra**  
Urtarrilaren 30ean  
2 urte. Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Asier Odriozola**  
Urtarrilaren 27an 8 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Carlos Lazkano**  
Urtarrilaren 26an  
urtebetetzea. Zorionak!  
Familiakoak.



BERGARA  
**Mikel Urrutia**  
Urtarrilaren 24an  
13 urte. Urte askotarako!  
Familiakoak.



BERGARA  
**Jokin Alfaro**  
Urtarrilaren 24an 6 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Peio.



BERGARA  
**Peio Alfaro**  
Urtarrilaren 30ean  
10 urte. Urte askotarako!  
Gurasoak eta Jokin.



BERGARA  
**Beñat Uribealzo**  
Urtarrilaren 25ean  
4 urte. Urte askotarako!  
Karmele eta etxekoak.



BERGARA  
**Irati Rodriguez**  
Urtarrilaren 23an 7 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Andoni Mujika**  
Urtarrilaren 22an 6 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Markel Garmendia**  
Urtarrilaren 24an 5 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak eta Marta.



BERGARA  
**Maddi Txintxurreta**  
Urtarrilaren 28an 8 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Maite.



BERGARA  
**Itsaso Montero**  
Urtarrilaren 25ean  
12 urte. Urte askotarako!  
Lagunak.



ANTZUOLA  
**Jone Jauregi**  
Urtarrilaren 30ean  
3 urte. Urte askotarako!  
Etxekoak; bereziki, Mikel.



BERGARA  
**Eider Garcia**  
Urtarrilaren 18an  
urtebete. Zorionak!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Ander Gallastegi**  
Urtarrilaren 26an 6 urte.  
Urte askotarako!  
Asier, Jokin eta gurasoak.



BERGARA  
**Kelly Valor**  
Urtarrilaren 24an 8 urte.  
Urte askotarako!  
Cheyenne eta etxekoak.



BERGARA  
**Itsaso Goenaga**  
Urtarrilaren 30ean  
6 urte. Urte askotarako!  
Etxekoak eta Maddi.



BERGARA  
**Josu Larrañaga**  
Urtarrilaren 28an  
urtebete. Zorionak!  
Etxekoak; bereziki, Gorka.



BERGARA  
**Amaia Etxaniz**  
Urtarrilaren 22an 4 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.

## Adi!

Argazkiak emateko lekuak:

**Bergara:** Berrigara, Irizar jauregia,  
Barrenkalea 33

**Antzuola:** Udal Liburutegia,  
astelehenetan 17:00etatik  
19:00etara

**Elgeta:** Erosle-Baltxongua



BERGARA  
**Gurutze Lete**  
Urtarrilaren 26an  
27 urte. Urte askotarako!  
Koadrilakoak.



BERGARA  
**Mikel Gallastegi**  
Urtarrilaren 23an 9 urte.  
Urte askotarako!  
Maite eta etxekoak.



BERGARA  
**Xabier Argarate**  
Urtarrilaren 27an 3 urte.  
Zorionak! Etxekoak;  
bereziki, Mireia.

# Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia\*  
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

\*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAREN agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

**Ganbara**

TABERNA

**Heure erara  
ibiltzeko!**

Irala z/g.  
BERGARA  
Tel. 943 76 55 75



**IRRINTZI**  
kafetegia

Irala 3. BERGARA  
Tel.: 943 76 48 26

**Dixula**

**BOKATAK  
DAUZKAGU**

Barrenkalea 32  
BERGARA  
Tf. 943 76 44 95

**ile  
apaindegia**

edertze gela

**disdira**

Masterreka, 7. BERGARA  
Tf. 943 76 00 55

**ezpeleta**

**Ostalaritzarako  
ehungintza**

Ostalaritza eta  
egoitzetarako  
mahai-zapi eta  
industri-ehunak

San Lorenzo 1, Bergara  
Tf. 943 76 28 77  
Tf. eta faxa: 943 76 17 09





# PROFESIONAL *liberalen* GIDA

## ABOKATUAK

**RAFAEL ARANBURU**  
Irizar 5. 943 76 10 81

**MILAGROS LARRAÑAGA**  
Simon Arrieta 1. 943 76 16 28

**BERNARDINO MAIZTEGI**  
Irizar 5. 943 7610 81

**ANA MOZOS**  
San Pedro 6. 943 76 45 52

**JUAN ANTONIO SIERRA**  
Irizar 2. 943 76 03 35

**UGALDE & ASOCIADOS**  
Bidekurutzeta 27. 943 76 11 57  
Faxa 943 76 03 02

**ZABALETA ABOKATUAK**  
Artekalea 12. 943 76 21 71

## INJINERUTZA

**ANGEL ARIZABALETA PADILLA**  
Espoloia 10. 943 76 59 18

**ESTHER FRAILE HERNÁNDEZ**  
(Nekazal injinerutza)  
Simon Arrieta 2A. 943 76 72 99

**TEKNIBER**  
Urarte 18. 943 76 53 19

## APAREJADOREAK

**XABIER GALLASTEGI**  
Ibargarai 35 (barruko plaza).  
943 77 70 00

**JOSE INAZIO MONDRAGON**  
Zurradero 8. 943 76 00 44

## AHOLKULARITZA

**AIERDI AHOLKULARITZA**  
Artekalea 1. 943 76 03 50

**ALFIS**  
Ibargarai 22. 943 76 48 48

**TBG AHOLKULARITZA**  
Matxiategi 36. 943 76 90 83

**ZUHURKI SL**  
Bidekurutzeta 46. 943 76 33 53

## PROKURADOREAK

**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**  
Easo 57, 3. Esk. (DONOSTIA).  
943 45 27 26 / 656 41 55 49

# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko urtarrilaren 24a / 143. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxe: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

## Sahararrei laguntzeko janaria eta dirua batzen ari dira herrian Anelkar eta Udala

AINZANE IRIZAR

Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren Lagunen Elkarrekin abian jarritako kanpainarekin bat egin dute Antzuolako Udalak eta Anelkarrek. Kanpaina horren helburua da saharar errefuxiatuei laguntzeko janaria batu eta elkartzuna adieraztea.

Anelkar Antzuolako Elkartasun Taldeak eta Antzuolako Udalak bat egin dute SEADek antolatutako kanpainarekin, eta janaria batzen ari dira herrian. Martitzenean, bestalde, Mohamed Salem Embarek Fronte Polisario kidea izan genuen herrian. Hitzaldia egin zuen, eta saharar errefuxiatuen gaur egungo egoeraren berri eman zien Oларanen batutako herritarrei, eta Sahararen historiaren nondik norakoak ere azaldu zituen.

### LEHEN ALDIZ, GOSEAREN BELDUR

Mohamed Salem Embarekek martitzeneko hitzaldian azaldu zuenez, armekin mendean hartu ezin izan dituztenez, gosearen bitartez menderatu nahi dituzte orain, Marokoren kontrolpeko auton-


mia onar dezaten. Hori, baina, ez dute onartzen sahararrek.

Kontua da Nazio Batuen Erakundeko ACNURek, errefuxiatuez arduratzen den erakundeak,

gero eta dirulaguntza gutxiago ematen diela. Horregatik jarri dute abian kanpaina hori. Salemen esanetan, "lehen aldiz, sahararrok gosearen beldur gara".

### JANARIA ETA DIRUA BATZEN

Herriko hainbat tokitan laga daiteke Tindouf-eko saharar errefuxiatuen kanpamentuetara bidaltzeko janaria, honako toki haue-



MUSEO DE NACIONALISMO VASCO

Asteburuan jarriko duten erakusketan era honetako argazkiak ikusi ahal izango ditugu.


*"Gure historian lehen aldiz, sahararrok gosearen beldur gara"*

MOHAMED SALEM EMBAREK

tan, hain zuzen ere: herriko hiru harategietan, udaletxean, Eroskin, Juanitaren dendan eta Herri Ikastetxean. Batez ere, lekaleak azukrea, atun latak, olioak, zerealak, arroza eta pasta batu nahi dituzte. Batutako janari guztia Tindouferaino bidaltzeak sortzen dituen gastuei aurre egiteko, berriz, dirua ere behar dute. Sahararrei diruz lagundu nahi izanez gero, Anelkarrek herriko bi aurrezki kutxetan dituen kontukorronteetan sar dezakezue dirua. Urtarrilaren 29ra arte jaso ko dute janaria eta dirua.

### ASTEBURUAN, ARGAZKI ERAKUSKETA

Zapatuan eta domekan, Saharako hainbat argazki jarriko dituzte ikusgai Oларan etxean, baita bideo bat ere. Ohiko ordutegia izango du erakusketak.



### Odol ematea izan zen eguaztenean

Antzuolako Odol Emaileen Elkarrekin deituta, jende ugari joan zen eguazten arratsaldean odola ematera. Gizarte etxeko lanak direla eta, parrokiako aretoan egin dituzte odol ateratzeak azkeneko urtebete pasatxoan. Urtean hiru edo lau aldiz egin dituzte odol ateratzeak herrian, eta badira hilabete batzuk Antzuolan azkeneko odol ateratzeak egin zituztela. Orduan Jose Angel Arbuluk azaldu zigunez, emailu ugari dago Antzuolan./A.I.

### LABUR

#### Gurasoendako hitzaldia Ipintza Institutuan

Ipintza Institutuan antolatutako Kultura Astearen barruan, ikasleen gurasoei zuzenduta hitzaldia egingo dute datorren eguazten arratsaldean, 18:30ean, institutuaren aretoan.

Eguazteneko hitzaldiaren gaia Internet izango da: hain zuzen ere, *Gurasoak, ordenagailuak eta Internet etxean* izenburuko hitzaldia egingo du Eider Ganboak. Antzuolako, Elgetako eta Bergarako gurasoei zuzenduta dago hitzaldi hori.



## Beheko auzo pareko bidegurutzean, arriskua

Irakurle batek deitu digu oraingo astean, kexa bat azaltzeko. Lapatza baserria eta Beheko auzoaren parean dagoen bidegurutzea oso arriskutsu ei dago. Bergara eta Urretxu aldetik datozen automobil asko abiadura bizian pasatzen dira pare horretan. Kontua da jende askok ibili behar izaten duela errepidea gurutzatzen; Lapatzako bizilagunak, esaterako. Eta susto bat baino gehiago izan dute. Abiadura mugak seinaleztatuta dauden arren, inork ez die jaramonik egiten seinaleei, eta beste era bateko neurriak har ditzaten eskatzen die irakurle horrek horren ardura duteinei. Dena dela, jakin badakigu bidegurutze horren egoera konpontzeko proiektua prestatzen ari direla Gipuzkoako Foru Aldundiko arduradunak. /A.I.

## LABUR

### Hazparneko Ikastolari laguntzeko, dirua batuko dute hilaren 25era arte

Laguntza beharrean dago Hazparneko Ikastola, eta, Antzuolaren senidetuta dagoen Aiherra herriko umeak hara joaten direnez, ekimen hori jarri dute abian herrian. Bihar, zapatua, izango da dirulaguntzak emateko azken eguna. Hazparneko Ikastolari lagundu nahi dionak, hortaz, bihar du azkeneko eguna. Idolazek herriko bi aurrezki kutxetan dituen kontuetan sar dezakezue dirua.

### Antzuola Kirol Elkarteak ezin izan du nesken futbol talderik osatu

Irailean, futbol denboraldia hasterako, ez zuten nesken futbol taldea osaterik lortu. Antzuola Kirol Elkarteak, baina, beste saiakera bat egin nahi izan zuen. Hala, abenduan, taldea osatzeko beste deialdi bat egin zuen. Euren helburua zen Kopa Txapelketa jokatzeko nesken taldea osatzea herrian. Edozelan ere, saiakera horrek ere porrot egin du, eta ez dugu nesken talderik izango aurten.

### 'Ice Age' filma eskainiko dute domeka arratsaldean Olan etxeko aretoan

Astero moduan, domeka arratsaldean film bat eskainiko dute Olan etxeko aretoan. *Ice Age* filma ikusteko aukera izango dugu, 16:30ean. Datorren astean, berriz, *Baloia* euskarazko filma eskainiko dute. Bestalde, aipatzekoa da sarreraren prezioa bost zentimo garestitu dutela; 1,10 euro kostatzen da orain.

### Areto Futbol Txapelketan aurkitutako kirol materiala udaletxean dago oraindik

Gabonetan jokaturako Areto Futbol Txapelketaren ostean, esku-larruak, zapatilak eta beste hainbat kirol material azaldu ziren frontoian. Udaletxean jakinarazi digutenez, oraindik hantxe ditzute topatutako gauza horiek guztiak.

## HERRITARRENHITZA/Maripi Jauregi · Irakaslea

### Txalo bero bat

Zertaz idatzi? Zer kontatu? Gaurko honetan, herriarentzat, euskal kulturarentzat eta beste hainbat elkartetan isilean eta borondatez lanean ari den jende guztia zoriondu eta txalotu nahi nuke.

Bai! Oso aipagarria iruditzen zait. Gaur egun jarrita gauden trenean ez da erreza horrelako ekintzetarako jendea aurkitzea. Izan ere, denera ordu guztiak okupatuta ditugu. Estres deritzan horren menpean bizi gara. Gainera, badirudi balorea galtzen ari direla ordaindu gabeko ekintza hauek

eta ordaintzen direnak inportanteagoak direla kontsideratzen da.

Baina bueno; harira bueltatuz, hauetariko talde bat aipatu nahi nuke: dantza taldea. Egia da talde honetan daudenak gustuko dutela dantza egitea. Baina hau ez da beraien eginkizun bakarra. Besteak beste, beste batzuei erakusteko ardura ere badute, haur zein nagusi. Haurrekin urte osoan



"Txalo bero bat borondatez lanean ari zareten guztioi!"

aritzen dira, erakusten eta gure herria eta beste batzuk alaitzen; nagusiekin, berriz, karnabal garai honetan. Eta zein konpentsazio jasotzen dute? Baloratzen al dugu herriari ematen dion bizia, poza eta umorea egun honetan? Talde honengatik izango ez balitz, Antzuolan ez ginatke enteratu ere egingo karnabalez. Talde honek mantentzen du herrian bizirik

gure euskal kulturako atal inportantetarikoa bat. Urtean zehar herrian egoten diren ospakizunetan ere dantza taldea beti presente dago.

Jarraitu ba horrela, merezi du eta! Eta gu, herritarrok ere, karnabalak direla eta, saiatu gaitzen antolatutako ekintzetan parte hartzen, gure esku ere badago eta egun hau bizirik mantentzea!

Bukatzeke, nahiz eta dantza taldean zentratu, hasieran esan bezala, txalo bero bat borondatez, diru truke barik, elkarte desberdinetan lanean ari zareten guztioi! Aurrera!

## KIROLA

### PARTIDUAK

#### FUTBOLA

Urtarrilak 25  
16:00: Antzuola-Eibartarrak (Gazteak)

#### PILOTA

Urtarrilak 25 (Udaberri Saria)  
17:30: Olalde-Girizia (Nagusiak eskuz)  
Ondoren: Olalde-Beharzana (Nag. pal.)

### EMAITZAK

#### FUTBOLA

Antzuola 1 Gazteak 2 (2. erreg.)  
Eskolapioak 2 Antzuola 3 (Gazteak)

#### PILOTA

Gipuzkoako Kluben Arteko Txap.  
Hernani-Olalde (infantilak) . . . . . 9-18

SUKALDEKO ALTZARIAK  
**Harizki**

**MUEBLES IGEA**

Sukalderako eta bainurako altzariak  
Altzari rustikoetan espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

**zabalo**  
IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Birgaitzeak • Fatxadak  
Teilatuak  
Sukalde eta bainu gelak

Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA.  
Tf. 943 76 60 89

**LEKY-BERRI MERENDEROA**

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94  
ANTZUOLA

# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003ko urtarrilaren 24a / 127. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

## Sahararrendako janaria batzeari ekin diote

OXEL EROSTARBE

Aurten ere Sahara janaria eta dirua bidaltzeko programa jarri dute abian Udaleko Ongizate Zerbitzuek. Urtarrilaren 30era bitartean, herriko dendetan eta udaletxean jasoko dute janaria. Eta dirua eman nahi dutenendako, kontu zenbakia zabaldu dute.

Fronte Polisarioak eta Sahararen Lagun Elkarteak janari bilketa antolatu dute Gipuzkoako hainbat herritan. Elgetan Ongizate Zerbitzuetatik bideratu dute kanpaina. Abenduaren 30era arte, lekariak, azukrea, zerealak, konserba latak, pasta eta olioak jasotzen dihardute herriko dendetan eta udaletxean. Dirua eman nahi dutenendako, Euskadiko Kutxan 3035006045060004746.9 kontu-korrontea zabaldu dute.

**GOSEZ HIL NAHI DITUZTE SAHARARRAK** Dagoeneko 27 urte daramatzate sahararrek Aljeriako kanpamentuetan errefuxiatuta. Azken hilabeteotan, okerrera egin du haien egoerak. ACNUR erakundetik dirulaguntza txikiagoa jasotzen dute; izan ere, zenbait herrial-



Aljeriako kanpamentuetan errefuxiatutako sahararrendako izango da laguntza.

dek ez dute onartu haiei laguntza ematea. Hala, Fronte Polisarioak Gipuzkoan duen ordezkari Mohamed Salem Embarek zera adierazi dio GOIBEKOKALERI:

“Gerrarekin eta legearekin menderatu nahi izan gaituzte sahararrak. Ez dute lortu, eta orain, gosez hil nahi gaituzte. Ziur gaude ez dutela lortuko”.

## Mapa toponimikuauren aurkezpena

Urtarrilaren 31n aurkeztuko dabe *Elgetako Mapa Toponimikoa*. Mapia egittiaz Alberto Telleria arduratu da. Elgetako leku izenak batu ditue mapa toponimikoan. Azken urtietan, konkretutasunetik orokortasunetara egin dogu salto; toponimiek leku izenekin konkretuaguak izateko balixo dabe, lekuen izana izenakin lotzeko.

Hortaz, mapa toponimikua Elgetako leku izenak danon eskura egon daitezzen lagunduko dau. /O.E.



## FLEURY MEROGISKO ESPETXEAN DAGO

### Ane Miren Alberdi, Parisko kartzelara

O.E.

Askatasuna kudeatzen duen epaileak hala erabakita, Parisko Fleury Merogisko kartzelan dago Ane Miren Alberdi elgetarra. Orain dela aste bi, Akizen atxilotu zuten Ane, ustezko beste bi ETAkiderekin batera. Familia-koek GOIBEKOKALERI adierazi diotenez, epe honetan ez dute harekin egoteko aukerarik izan. “Hamabost egun hauetan ez digute Anerekin egoten laga. Frantzia bisitek ez dute Espainian

moduan funtzionatzen. Ane ikusiko dugun ez dakigu. Baina an behin, euskal presoak bizitzeko autobusa egoten da. Orain go aste bukaeran ez du bizitzeko aukerarik. Ea hurrengoan aukera dugun”.

**ETXEKOAK LASAI EGON DAITEZELA** Abokatuak esan dienez, Ane dago osasunez eta moralez: “Aberak eskatu zion abokatuari lasaitzeko. Eta Ane osasunez moralez ondo dagoela jakin lasaia goaude”.

## BATASUNA

### Prentsaurrekoa, lege kanpo uztearen aurka

O.E.

Herri Batasuna, Euskal Herritarrok eta Batasuna alderdien izenean zinegotzi izan diren elgetarrek prentsaurrekoa emango dute gaur iluntzean (barikua), Batasunaren legez kanporatzea salatzeko. Prentsaurrekoa 20:00etan izango da, udaletxean. Independenten moduan zinegotzi izandako batzuk ere izango dira bertan.

Prentsaurrekoa deitu dutenen hitzetan: “Orain arte

moduan, Elgetan ere ideia proiektu guztiek euren lekua behar dute. Elgetako kaleetan udaletxean ezker abertzalearen presentzia beharrezkoa da”.

Prentsaurrekoaren ostean manifestu bat sinatuko dute Herri Batasuna, Euskal Herritarrok eta Batasuna alderdiek Elgetan izan dituzten zinegotziek. Manifestu horrekin, “inolakoz bantketarik gabe, bakoitzak bere ideiak defendatzeko aukera lortzea” eskatuko dute.



## ELGETA AUTOAK

Berraondokoa z/g ELGETA  
T. 943 76 82 02 F. 943 76 82 98

JARDUNABALKOITTIK



Oxel Erostarbe

Ynestrillas  
zaleik ez

Gure herrixan behintzat ez dago. Ozkarbixan, bibak esan zirala, estrofairen bat entzun zala... mahaixan zerenak alkarri ernegatzeko izan ziran, inhor mintzeko intenziño barik. Eskumako eskua altzau eta kanturreuan egin zebanik ez ei zan egon. Ynestrillas zaletzat izendatu nittuanei, barkamena eskatzen dotset. Gertautakuan barri jende askori entzun notsan, jarduna gordiñegi azaldu neban. Idazten dabena egiten dau kale. Hobe hori, kalia eta tabernan, atzetik jardunian ibiltzia baiño.

Gutxi konturatu diran arren, arduratzen nabena, Elgetako umien artian, euskal eta erdal munduak, kuadrillak... sortzia da. Ez naiz hori arriskuoi somatzen daban bakararra. Herriko neska-mutikuak batera ikusi nahi nittuzke, urtietan gertau dan moduan. Gurasoak, alkarrekin inddarra egittera animatu nahi nittuzke, euren umien bizimoduan, euskeriak merezi daban lekua izan deixen. Hala izan deilla...

Sebas Arantzabali erantzunez: GOIBEKOKALEk, Elgetan sortzen diran notizia garrantzitsuenen artian emon zeban, Intxor-tan egindako ekitaldixen barri. Itxuria, Sebas konfundiduta dago.

ASTEKO GAIXA

Drogen gaiñian jarduteko, kafe tertulixia izango da gaur gabian gaztetxian

O.E.

Gaur, barikua, 21:30ian, kafe tertulixia izango da gaztetxian. Berbetarako gaixa drogak izango dira. Horrekin ekintza horrekin, gaztetxekuen asmua da herriko gaztiak drogen aurrian dauken ikuspuntu eta jarrera desberdiñak mahai gaiñian ipintzia.

Alkohola, porruak, arraiaxak, pirulak..., errez topau leizken drogak dira. Gaur gabian, droga bakoitzak eragitten dittuanen gaiñian egingo dabe berba. Drogen eta jaixen arteko loturiaren gaiñian be jardungo dabe herriko gaztiak. Askotariko esperientziak entzute aldera, kafe tertulixian adin askotariko jentia batzia da gaztetxekuen asmua. Hori dala eta, elgetarrak animatu gura dittue parte hartzeko.

ZAPATUAN, KONZERTUA

Drogen gaiñeko kafe tertulixia ez da aste bukaerarako gaztiak antolatutako ekintza bakararra. Bihar, zapatua, kontzertua izango da gaztetxian, 23:00etan.

Hiru musika talderen musika entzuteko aukeria egongo da: Ondarruko eta Bermeoko musikarixek osatzen dabena Johnny Gerriwelt and the fucking bastars taldea igoko da taula gaiñera lehenengo; eta Debagoieneko talde bi be izango dira Elgetako gaztetxian: Aretxabaletatik Jodete taldea etorriko da eta Arrasatetik, Never Surrender. Ezagunak ez diran taldiei kontzertuak egiteko aukeria emon gura dotse gaztetxekuek.

Aste bukaerarako ekintza bi antolatuta, indartsu ekin dotsa urte barrixari gaztetxiak.



Porruak, alkohola, pilulak eta beste zenbait droga izango dituzte mintzagai.

GAZTEMANIAK

White Flag talde estatubatuarrak kontzertua emango du Espaloian

O.E.

Datorren astean jarriko dituzte salgai White Flag talde estatubatuarraren kontzerturako sarrerak. Talde horrek punk-rock estiloko musika egiten du. 20. urteurrena ospatzen dihardu taldeak, eta urte hauetan, 16 disko kaleratu ditu. Taldea, hortaz, oso ezaguna da punk-rock zaleendako.

Otsailaren 8an Espaloian izango den kontzertua Diputazioak gazteen denbora librean antolatzeko sortutako Gaztemaniak taldeak antolatu du.

**DANTZALDIA SAN BALENTIN EGUNEAN**  
Erretiratuek dantzaldia antolatu dute, Espaloian, otsailaren 14an. San Valentín eguna dela-eta antolatu dute dantzaldia. Parte hartzera gonbidatu nahi dituzte herritar guztiak.



WHITE FLAG.

Hogeigarren urteurrena ospatzeko, Europa osoa zeharkatuko du White Flag-ek.

LABUR

Debagoieneko kirol txartela Elgetan ere egin daiteke

Elgetako Udaleko Kirol Zerbitzuetan egin daiteke Debagoieneko kirol txartel bateratua. Txartelak Debagoieneko udaletako kirol zerbitzu guztietako abonatu egiteko balio du. Txartela eskuratzen dutenek Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza eta Oñatiko kiroldegietan sartzeko aukera izango dute. Eta kirol jarduera zerbitzu eta ikastaroetan beharpenak eskaintzen ditu.

Txartelaren prezioak: 18 urtetik beherakoentzako, langabeendako eta ikasleendako, 71,50 euro; 18 urtetik gorakoentzako, 102,65 euro eta familiarra, 143 euro.

Txartel bateratuaren horren jabeak merkeago sartu ahal izango dira Donostia-ko La Perlan eta Zestoako eta Zumaiako bainuetxeetan.

SAIOA ARANZABAL  
MASAJEAK


ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea •
- Reflexologia •
- Hidromasajea •
- Kirol masajea •



- Solariuma
- Drenaje linfatikoa
- Algekin eginiko estalkia

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko



Jesus Mari Montiel  
ITURGINTZA  
ETA BEROGAILUAK

Artekale 3  
Mo: 656783299 Eibar  
Tel: 943 70 07 19  
KONPONKETAK  
SUKALDE  
ETA BAINUGELETAN



RECYDE, S.A.

Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa  
Tel. zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10  
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es

AENOR



Enpresa Erregistratua

ER-0182/2/95

ISO 9002  
QS 9000  
ISO/TS 16949

## ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

Labegaraietako  
lagunak  
barraketan

P azkoak oraindik urrun geratzen diren arren, Bergarako jaietako argazkia ekarri digute oraingo asterako. Erretratua orain dela 15 urtekoa da, eta Labegaraietako lagun talde bat agertzen da bertan, tiroaren barrakan. Beheko estazioan jartzen zituzten barrakak garai hartan. Antza, Iban Agirrebeñak punteria bikaina erakutsi zuen eta koadrilaren argazkia eraman zuten etxera. Argazkiko gaztetxoek 13-15 urte izango zituzten orduan, eta jaietako alkandorarekin ikusten dituzue, dotore-dotore. Buruko zinta ere modan egongo zen... Hauek dira argazkikoak, ezkerretik eskumara:

Aurreko ilaran: Garikoitz Arregi, Iban Agirrebeña eta Josetxo Lizarralde.

Bigarren ilaran: Igor Bauza Rioja eta Fernando Agirrebeña.

Atzean: Iban Agirrezabal eta Iñigo Alkorta.

Argazkia: Iban Agirrebeña.



## ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARa (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

## NOLAALDATUDIRENGAUZAK


BERGARA

San Antonioko  
ermita

San Antonio auzoa erabat aldatu da azken urteotan, han egin dituzten obren eraginez. Zalantza barik, askok eta askok gogoan izango dute San Antonioko ermita. Bada, dagoeneko bost urte bete dira San Antonioko ermita bota zutenetik, 1997ko abenduaren 23an bota zuten-eta. Auzotarrrendako egun tristea izan zen hura. Kapera bota baino urte batzuk lehenago itxi zuten ondoko La Parra taberna.



1996 San Antonio ermita bota aurretiko argazkia. Ezkerreko etxebizitza ere 1997an bota zuten. La Parra taberna urtetan izan zen han.




2003 Ermita eta ondoko etxebizitza zegoen lekuan gailuen aparkalekua dago. Udaberrian, ermita berria inauguratu zuten, Toki-Eder plazan.



**Zumelaga**  
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21



**Manufacturas LARRAÑAGA**  
LAN-BABESERAKO ARTIKULUAK

Eskularruak: larruzkoak, lonazkoak, nitrilozkoak eta PVCzkoak • Polainak: larruzkoak • Amantalak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Mangitoak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Txanoak: lonazkoak eta skay-zkoak • Segurtasuneko oinetakoak • Entzumen-babesa eta begi-babesa • Soldatzaileendako aurpegirako babesa • Maskarak • Lunbalgiarako gerrikoak eta faxak • Hotzaren kontrako parkak • PVCzko trajeak • Soldatzaileendako larruzko jakak (3/4) • Lanerako arropa • Hotzaren kontrako txalekoak • Eta abar...

Leizeaga 1 BERGARA Tel. / faxa 943 76 59 53.



# MARIAREN LAGUNDIA IKASTOLA

## ATEAK ZABALIK

Larunbat honetan, urtarrilak 25  
Goizez, 12etatik 13,30etara, eta  
arratsaldez, 4,30etatik 7,30etara

5etan: **IKUSKIZUNA ERIZ MAGOAREKIN**  
**ETORRI ETA IKUSI !!!!!!!**

**Mariaren Lagundia Ikastola**  
**MATRIKULAZIO EPEA :**  
**Otsailaren 3tik otsailaren 14ra**  
**bitartean**



**HAURTZAINDEGIA, HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA, DBH**  
**ETA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK.**

MARIAREN LAGUNDIA IKASTOLA  
Espolola 1 Tfnoa.: 943 76 25 40-41, Faxa: 943 76 33 31  
e-mail: marilagikastola@euskalnet.net

Argazkiak eta diseinua URKAN



**Hezkuntza eremu guztiak barne sartzen dituen heziketa integral, kristau eta kalitaztekoa**



ASTEBETE....

Eta zuk, zer duzu esateko?

Kexak, proposamenak, albisteak...utzi zure mezua gure erantzungailuan: **943 71 23 93**



**Ikusiko  
duzu!**

**Egubakoitzero,**  
20:30ean eta 22:30ean

Aurkezlea:  
**Goiatz Arana**